

# JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIA (1634)


LEHEN EUSKAL ANTZERKIA



ALZIETA (NAFARROA BEHEREA) ELIZAKO IRUDIA

PATRI URKIZUREN EDIZIOA

Ikerlan honek, Errenteriako Udalak 1996an antolatutako IV. Koldo Mitxelena Saria irabazi du.



# **JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIA**

## **(1634)**

### **AURKIBIDEA**

Atarikoa

I.	Euskal antzertiaren etorkiaz .....	132
II.	Jundane Jakobe Handiaren Trageriaren iturriez .....	137
III.	Eskuzkribuez .....	144
IV.	Gai nagusiaz, komuntadurez eta aldaerez .....	146
V.	Bostgarren mirariak: Urkatu biztuaz .....	155
VI.	Pertsonaiez eta jokaeraz .....	167
VII.	Hizkuntzaz eta literaturaz .....	172
	Bibliografia .....	180

### **JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIA**

Zenbait hitzen argibidea .....	287
Izen propioen zerranda .....	292

# JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIA (1634)

## PATRI URKIZU

### ATARIKOA

Eta dembora berean iar cedin regue Herodes Eliçaco batzuén affligitzen. Eta hil ceçan laques loannesen anaye ezpataz.

(Ioannes Leizarraga. Apostolu Sainduen Acteac, cap. XII,1-2. *Iesus Christ gure launaren Testamentu berria*. Rochellan, Pierre Hautin, 1571, 230.)

NOLA iritsi da Lukas deunaren aipamen labur honetatik Jundane Jakobe Handiaren ixtoriora? Apostoluen taldeko lehen martira izatetik, horrela Jaunari haren kalizatik edateko egindako promesa beteaz, *Santiago matamoros*, *matandios*, *matarrojos* eta *invictissimi imperatoris miles*, Espainako eta Ameriketako lurraldeetan justiziaren zaindaritzat hartua izatera?

Zein modu eta eratan sortu, aldatu eta hedatu ziren bere mirariak eta moldatu zituzten teatroan frantses misteriogileek eta beste europear idazleek? Eta zer gisara itzuli eta berregituratu zuten sainduaren bizitza eta honen gainean asmatutako ixtorioak xuberotar errejentek?

Galdera hauei erantzuten, eta bidenabar bilakabide honen azterketa eta batez ere antzerti emaitza, alegia, *Jundane Jakobe Handiaren trageria*, aurkezten saiatuko gara.

Honen lehen eskuzkribuak 1634. urteko data darama, eta beraz, daukagun lehen euskal antzerti testua da, zaharrena eta gaur arte argitaragabea. Hori dela eta, zer egokiera hobeagoa plazara dezagun eta antzerti zale guztien eskuetan ipini euskaldunen eta Santiagoko erromesen arteko harreman emankorren lekukotzat har dezakegun obra hau?

## I. EUSKAL ANTZERTIAREN ETORKIAZ

**EUSKAL** literaturaren alorrak, areago oraindik teatroarenak, azken aldian zer-txobait jorratzen ari diren arren, oso gutti urratuak daude, eta heietan aski eskasa da ikerketa lana, oraino egun artxibo eta eskuzkribu anitz baitaude aztertzeko, eta argitaratzeko.

Beraz, hemengo gure ahalegina, soro horretan gure metatxoa jasotzera zuzenduko da, mugari zenbait poliki poliki eraiki eta hutsuneak betetzen saiatuz.

Has gaitezen, bada, luzamendu gehiagorik gabe.

Beste ikerle anitzen artean Vito Pandolfi-k<sup>1</sup> dioen bezala, jakina da antzertiak eta bereziki liturgi dramak bilakaera komuna izan duela europear nazio guztietan, eliza beraren etsaigo nabarmena pairatu arren. Honen adierazgarri lirateke hainbat eta hainbat teologo, kontzilio eta sinodoen debekuak, batez ere Eguberri, Bazko edota lekuko Saindu zaindariaren festa egunen inguruan, errepresentazio sakratuekin batera ematen ziren jokaldi profanoen kontra.

Honela bada, ez litzateke irudipen huts pentsatzea, Euskal Herriaren inguruetan liturgi dramak eta misterioak errepresentatzen baziren, adierazten dutenez 1345. urteko Pasio Gaskoin batek<sup>2</sup>, hala nola beste misterio zenbaitek, ematen zirela ere bere esparru barnean antzeko ikuskizunak.

Idea honen ildotik doa, adibidez, Emile Ducéré<sup>3</sup> historiagileak zioena, hots, euskal trageriak eta pastoralak ez zirela erdi aroko misterio eta dramen ondorioak baizik, alegia, beste garai batean ia Europa guztian barrena antzezten zirenen antzekoak.

Zehaztasunak bilatzen hasiz gero hor daukagu Junes Cassenavek<sup>4</sup> adierazten diguna Zuberoako elizetako ederlanen lekukotasunaz, eta espreski Alzabebetiko ormirudiaz, non ikus dezakegun andere multzoa prozezio batean pastoraletan antzera makila eskuan. Santagaraztar honen iritzi, balirudike zuberotar antzerkia bizirik zegokeela XIV. mendean, liturgi antzerti bezala.

Ez dira hain baikor beste zenbait kritikari, adibidez, Koldo Mitxelena. Honek, Juan de Albret eta Catalina de Foix erregeen koroatzearen festetan, 1494. urte-

1. Vito Pandolfi, *Storia universale del teatro drammatico* (Torì, 1964). Katalanerazko itzulpena: *Història del Teatre* (I), Barcelona, Institut del teatre 1989, 229.

2. Gaston Guillaumie, *Le théâtre gascon*. Bordeaux, Delmas 1941, 9.

3. Emile Ducéré, "Le théâtre bayonnais sous l'ancienne régime", *Revue de Basses Pyrénées*, 1883, 119-120.

4. Junes Cassenave, "Zuberotar Antzertiaren sortzeaz eta iturriez", *Antzerti berezi* 4, Donostia, 1983, 4-10.

5. Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca*. Madrid, Minotauro, 1960, 26.

an, hain zuzen, Iruñean eman zen komedia aipatzen digunean<sup>5</sup>, komentatzen digu nola tarte batean, ondoko euskal koplak kantatu ziren:

*Labrit eta errege  
Aita seme dirade,  
Kondestable Jauna  
Arbizate anaie.*

Baina bertso sinple horiek ez dutela inolaz ere frogatzen antzerki hura euskaraz eman zenik. Halere, eransten digu, froga argi eta garbiak badirela liturgi drama XVI. mendean Euskal Herrian eman zela defenditzeko, agian desagertu zatekeena Trentoko kontzilioaren ondoren, Elizak hartutako jokaera gogor eta kontrakoa medio.

Dena den, erlijio teatro baten lehen albistea, gisa honetara kontsidera baditza-kegu trageriak eta pastoralak, Jean-Alexandre Buchon artxibo zaindari ospetsuak ematen diguna da. Hau 1839. urtean Santagrazin egon zen *Hirur Martirak* deitu pastoralak ikusten, eta honi buruz ematen digun komentarioan<sup>6</sup>, *Le Capitole de Toulouse* errebistan, hain zuzen, esaten digu Atharratzetik igarotzerakoan Saffores errejentari bisita egin eta honek zeukan hirurogeiren bateko multzotik bat erosi ziola, zeraman titulua *Clovis* zela eta eskuzkribuaren data 1500. urte inguru-koa, hain zuzen.

Ezinezko zaigunez Buchon-en ezagutza paleografikoez duda izpirik eduki, bera-xe izan baitzen Erdi Aroko ikerlerik handienetakoa, Frantziako Artxibo eta Liburutegietako inspektore orokorra, eta XV-XVI. mendeko kronika frantsesen argitaratzailea, eskuzkribu horren galeraz dolu egitea besterik ez zaigu gelditzen, edota bilatzen saiatzea, ea familiako paperen artean noizpait agertzen den.

Badakigu ere, Louis Petit de Julleville-ri esker<sup>7</sup>, Baionan Eleonora erreginak sarrera egin zuenean 1530. urtean ordainarazi zituela garaiko 50 libera, pastoral baten antzezkiunaren orde. Uztailaren bian eman zela, *le jeu d'une bergerie, jouée her soir en cette ville*, eta kaleetan gaindi, *on joua comedies, farces et fainctes*, hots, komediak, farsak eta fantesiak antzestu zirela, espreski Pariseko burges baten egunerokoak adierazten digunez.

Baina ez ziren soilik Baionan eta erreginaren etorrera zelako antzesten kome-  
diak. Arnaud Oihenartek bere 1665. urteko *Art Poétique* delakoan Donibane Garazin Jean Etchegarayk, poesiara ere dedikatzen zenak, jokarazi zuela zenbait aldiz *Arzain gorria* izeneko pastoralak idazten baitu<sup>8</sup>.

6. George Hérelle, "Une pastorale de l'an 1500", RIEV, T.XVII, 17-19.

7. Louis Petit de Julleville, *Répertoire du Théâtre comique de France au moyen-âge*. (1<sup>st</sup> éd., Paris 1886), Berrag., Genève, Slatkine reprints, 1967.

8. Pierre Lafitte, *L'Art Poétique basque d'Arnaud d'Oyhenart (1665)*. Bayonne, Gure Herria, 1967, 33.

Jakin, badakigu ere nola 1566. urtean Lesakan antzeztu zuten *El Auto de la Pasión de Nuestro Señor Jesucristo*, alegia, Pasioa, zein Julio de Urquijoren ustez, Diego de San Pedoren *La Pasión Trovada* deituaren moldaketa bat izango zen, eta hau Esparzaren iritziz<sup>9</sup> kontutan harturik ikuslegoa euskaraz emana beharko zuen izan, ...*porque la verdad es que, en el siglo XVI, una representación en castellano en Lesaca hubiera equivalido a hablarles en chino.*

Uste honen aldeko, usteak erdia ustel direla ere, legoke Lope Martínez de Isasti<sup>10</sup> lezoarrak esaten diguna Oiartzungo organista famatu batez, alegia, Joanes de Larrumbide delakoak antzeztarazten zituen obrez. Halaxe dio:

Joanes de Larrumbide, organista, famoso por sus habilidades fue vecino de Oyarzun, á donde vivió muchos años. Fue gran poeta de bascuence, que compuso muchas comedias á lo divino, la del sacrificio de Abraham, de Job, de Judith, la Josefina y otras, que se representaron con grande fiesta, y con particular ingenio, que este hombre tenia: y compuso muchas prosas, canciones, é historias en verso: y fue maestro de cantoria que enseñó a muchos.

Beraz, *El Sacrificio de Abraham, Job, Judith* eta *Josefina* besteen artean errepresentatuak izan ziren Oiartzunen XVI. mendean. Obra hauek, aski ezagunak ditugu gaztelaniazko errepertorioan, adibidez, *El auto del Sacrificio de Abraham*, eta *El Auto de la paciencia de Job* Eduardo Gonzalez-ek<sup>11</sup> argitaratu bilduman aurki daitezke. *La tragedia llamada Josephina*, aski ezaguna da ere, bere egilea Micael de Carvajal baita, eta Toledon 1546. urtean moldiztegiratu baitzen. *Judith y Holofernes* auto sakramental ere, aurrekoa bezala, Cayetano Alberto de la Barrera y Leiradok bere katalogoan aipatzen dizkigu<sup>12</sup>. Mitxelena berak aipatzen digu 1599. urtean Erreterian antzeztu zela *La conversión y penitencia de la Magdalena*, eta 1600.ean *Vida y loas de San Juan* deitu obra. Halere, ez du uste euskaraz errerepresentatzen zirenik, ez zelako izango seguruen euskaraz antzezten jakingo zuen aktorerik, eta probetxu handirik ateratzerik ez zutela izango garaiko ikuslegoak.

Hona komentarioa:

¿Qué provecho podían sacar muchos de los oyentes de estas obras en lengua extraña, en cuya representación tenían que intervenir sacerdotes sin duda porque no había

9. E. Esparza, "Sobre la representación en Lesaca en 1566 de la Pasión Trovada de Diego de San Pedro", *Príncipe de Viana*, Pamplona, 1945. T. 20, 487-491.

10. Lope Martínez de Isasti, *Compendio Historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa* por el doctor..., en el año de 1625, impreso en San Sebastián por Ignacio Ramón Baroja, 1850.

11. *Autos sacramentales desde su origen hasta fines del siglo XVII*. Ed. de Eduardo González Pedroso, Biblioteca de Autores españoles, T.LVIII, Madrid, 1952, 16-22, 29-35.

12. Cayetano Alberto de la Barrera y Leirado, *Catálogo bibliográfico y biográfico del teatro antiguo español desde sus orígenes hasta mediados del siglo XVIII*. Madrid, 1860. Tamesis books limited, London, 1968.



muchos otros que pudieran decir correctamente los papeles? No demasiado, según toda probabilidad. El hecho es, en todo caso, que su representación no ofrece la menor duda<sup>13</sup>.

Lesakan, Oiartzunen eta Errenterian ez ezik badakigu 1602. urteko astesantuan Hondarribian ere antzeztu zutela *La Pasión y remembranza de nuestro Señor Jesucristo*, Udaletxeko agiri batek, martxoaren seikoak, hain zuzen, adierazten digun bezala:

Este día sus mercedes dijeron y proveyeron que por mucha devoción que en esta dicha villa se tiene haya y se represente en la iglesia parroquial de esta dicha villa el día y noche de jueves santo de éste presente año y cuarentena la pasión y remembranza de nuestro Sr Jesucristo...<sup>14</sup>

Berri bakan hauen ildoari jarraikiz esan dezakegu, ez zirela, antza denez, hain bakanak, ohizkoak baizik emanaldi hauek. Adibidez, ikusiko dugu Lurriztia izeneko bat Lesakan XVII. mendean antzeztarazten Madalen egunerako berak moldaturiko komedia, hala nola beste bat Besta Buruan, hau da, Corpus egunean.

Eta Gipuzkoa-Nafarroa aldea ez zen izango leku bakarra, Bizkaian ere eta Durangon preziski, 1643. apirilaren 23an Errejimenduaren bilkura batean erabaki baitzuten, Corpus Christi egunean eta biharamonean dantzak, komediak eta auto sakramentalak eman zitezen, eta Capanaga lizentziatua ardura zedin ikuskizun hauetaz<sup>15</sup>. Delako Martin Ochoa de Capanaga hau ezaguna dugu ere dotrina bat euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu zuelako 1656. urtean<sup>16</sup>, Durangon gramatika irakaslea eta Mañarian hil zelako 1661.ean. Bilbo aldean ere jokatuko ziren dudarik gabe antzezkiak, Rafael Enrique Uraldek<sup>17</sup> argitzen digun arabera.

Bestetik ezaguna da ere Jakes Belako (1586-1667) mauletar abokatu protestanta, zeinek bere idazlanetan<sup>18</sup> Donapaleun garai hartan ematen ziren astolasterak aipatzen dizkigun eta debekatuak behar zutela izan esaten. Eta nola Molière-ren garaikidea zen Poisson<sup>19</sup> antzerti gizonak euskal antzerkigile baten

13. Aip. Lib., 27.

14. Julio de Urquijo, "El Misterio de la Pasión representado en Fuenterrabía el año de 1602", RIEV, III, 1909, 331-340.

15. M-B. A., "Mañariko Otxoa Kapanagakoari buruz beste berri bat", BAP, XXXII, 1976, 305-306.

16. *Exposición breve de la doctrina christiana*...traducida del lenguaje castellano al bascongado por el licenciado Martin Ochoa de Capanaga. luã de Azpiroz, Durango 1656.

17. Rafael Enrique Uralde, *Apuntes para una historia del teatro en Bilbao*. Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 1982.

18. *Tablettes juridiques*, Archives Départementales des Pyrénées Atlantiques, IJ 62/2, f° 259.

19. Victor Fournel, *Les contemporains de Molière. Recueil de comédies, rares ou peu connues de 1650 à 1680...*, Genève, Slatkine reprints, 1967, 429-454.

lepotik irri egiten duen 1668. urtean argitaratu zuen *Le poète basque* izeneko komeria batean. Honen izena André-Dominique Jouanchaye omen zen, eta bere obren artean titulu hauexek aurki zitezkeen: *La Création du monde*, eta *L'Arche de Noé*.

Abokatuek gaitzesten bazituzten komediak, ez ziren gelditzen atzerago debeku kontutan Elizako agintariak, eta hala aurki dezakegu Zuberoako Erregelamendu bat, 1695. urtekoa hain zuzen, gaitzesten dituenak astolasterrak, ... *on ne fera plus charibaris et cours d'ânes*<sup>20</sup>. Halaber Baionako diozesako katiximak bi leku ezberdinetan aipatu eta kondentatzen ditu, ondorengo aipuan ikus dezakeguz:

3. Romanac et liburu gaichtoac iracurtcea.
4. Balac, Dançac, Comediac, biluzqui edo modestia gabe bestitua ibilcea.[...]
3. Hitz libroeguiac erraitea, canta libroeguiac cantatcea, edo hequin axeguïn harcea.
4. Romanac, comediac, edo berce cenbait liburu amodioz minço denic iracurcea<sup>21</sup>.

Eta jokabide berdina hartzen du ere Olorueko apezpiku, Jean de Revol-ek 1753. urteko ordenantzetan astolasterrak, maskaradak eta pastoralak debekatuko baititu, egileei elizaren grazia kenduko zaiela mehatxatuz: *Nous déclarons que nous priverons des grâces de L'Eglise les paroisses où on aura fait de charivaris, cours d'ânes, masquarades, pastorales et autres tumultes*.

Beraz, ados gaude Julio Urquijorekin<sup>22</sup> eta ez gaitzke bat etorri Albert Léon-ekin dioenean, beste aldetik benetan miresgarria den bere tesian<sup>23</sup>, ez dagoela ezer euskal elizaren historian bertan inoiz liturgi dramak eman direnik baieztatze-ko. Hona Baionako judu itsuaren hitzak zehatz-mehatz:

...rien dans l'histoire ecclésiastique des provinces basques, en particulier de ce côté-ci des Pyrénées et de la Bidassoa, et notamment en Soule, n'indique ni même ne donne à pressentir que le drame liturgique ait jamais prid pied sur ce sol.

Halaber konforme gaude Francisque Michelekin<sup>24</sup> esaten duenean, ezinezkoa dela zuzenki jakitea noizkoak diren ikuskizun hauek, baina gaiak gehienetan sainduen bizitzetatik, Bibliatik edota gerra kantuetatik hartuak direnez, XIII. edo XIV. mendera, misterioak eta zaldun eleberrien irakurketak modan ziren garaietaraino

20. Christian Desplat, "Famille et communauté: contraintes et lois morales de la fin du XVe siècle au début du XIX siècle", *Société, politique, culture, en Pays Basque*. Donostia, Elkar, 1986, 168.

21. Lavieuxville-Harostegui, *Bayonaco diozesaco bi-garren catichima*. Baiona, 1773, Ed. L. Villasante, Euskaltzaindia, Bilbao, 1985, 127, 151.

22. Aip. art. 333.

23. Albert Léon, *Une pastorale basque, Hélène de Constantinople. Étude historique et critique*. Paris, Honoré Champion, 1909.

24. Francisque Michel, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Paris, F. Didot 1857, 52.

eraman gaitzaketeela. Beranduago eta soka liburuxken bitartekoari esker, esango digu Léonek, aurkitu zutela errejentek beren antzezkiuzenetarako gaiak. Honelaxe adierazten du bere iritzia:

...les livres populaires imprimés, qui dès le XVI siècle et même à la fin du XVe, furent répandus par le colportage dans toute la France et dans les pays moralement et intellectuellement tributaires de celle-ci, ont été le plus souvent le véhicule par où les sujets des anciens mystères en question sont parvenus à la connaissance des auteurs dramatiques du Pays Basque<sup>25</sup>.

Beste ikuspegi bat aipatzen duelarik, Julien Vinsonekin<sup>26</sup> ere bat gatoz dioenean, pastoralak ez direla euskaldunen antzerti partikularra, garai batean bearnesek, gaskoinek, katalanek edota bretoiek ere herri antzezkiuzun berdinak izan zituztelako, eta folklore emaitzak bezala kontsideratu behar direla, idatziak izan arren, egileen nortasuna antzezleen ahoan desagertzen denez gero.

Labur bildurik, bada, hona gure iritzia. Zuberoako pastoralak hala nola Bidasoaren hegoaldean emandako erlijio teatroak hastapenean iturri bera lukete, hots, lehen albiste zehatzak XVI. mendekoak dituzten liturgi dramak, hain zuzen. Eta Antonio Labaien jaunaren hitzak errepikatuz, *emen ere beste toki geinetan bezala Teatroa Elizaren babesean asi eta sortu zan*<sup>27</sup>.

## II. JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIAREN ITURRIEZ

**JUNDANE JAKOBE**ren bizitza kontatzen diguten tradiziozko itxorioetan, hiru gai nagusi ematen dira, Millán Bravo<sup>28</sup> irakasleak argitzen digun bezalaxe:

1) Jundane Jakoberen Espaniako bisita ebanjelizazio bidaian eta bere Jerusalemeko itzulera, hemen burua moztu zioten arte, K.o.-go 44. urtean.

2) Nola martiraren gorpua itsasoz Galiziara eraman zuten bere dizipuluek, Finisterrae aldean ehortziz. Eta

3) Nola Iria Flavian, IX. mendean Teodomirok ediren zituen sainduaren errestuak.

Gorpua aurkitu zuten lekuan, gauz izar ditzizari batzuek argitzen omen zuten, eta horregatik deituko zioten lekuneari "Campus Stellae", alegia, gaur eguneko Compostela.

25. Aip. lib., 76.

26. Julien Vinson, *Le folklore du Pays Basque*. Paris, Maisonneuve, 1883, 309.

27. Antonio Labaien, *Euskal Antzertiaren edestirako apur batzuek*. Tolosa, 1933, 3.

28. *Guía del Peregrino Medieval ("Codex Calixtinus")*. Traducción castellana de Millán Bravo Lozano. Centro Estudios Camino Santiago. Sahagún, 1991.



Errega turka

Santiago de Compostela, beraz, Jerusalemekin eta Erromarekin batera, kristau munduko peregrinazio lekurik inportanteenetakoa bilakatuko da, eta bidenabar, egoki eta beharrezko zenez, turismoko gida antzeko liburuxka, argigarri bat, sailduaren ekintza eta mirarien zabalkunderako, propagandarako balioko duena sortuko da.

Hau XII. mendean fabrikatuko da batipat, 1140. urtetik 1173.era doan epean, hain zuzen, egilerik printzipalena, edo biltzailerik nagusiena Cluny-ko ordenarekin harremanetan zegoen eta Calixto IIa aitasainduaren kantzilerra izan zen apez frantssez bat delarik, alegia, Parthenay-le-Vieux-en jaiotako Aimeric Picaud. Bere obra, *Codex Calixtinus* delakoak 225 folio ditu eta bost liburuotan banaturik dago:

I. Liburua: Jundane Jakoberen ohoretan egin liturgi lanen antologia. Sermoiak, ofizioak eta himnoak (fol. 1-139v).

II. Liburua: Jundane Jakoberen mirariena. XI eta XII. mendeetan sortzen diren beste anitzen oso antzekoa (fol. 139v-155v).

III. Liburua: Jundane Jakoberen lekuz aldatzearena eta festarena. Espainiako ebanjelizazioaren eta martirioaren istorioa (fol. 155v-162v).

IV. Liburua: Pseudo-Turpin-en leienda edo nola Karlomagnok konkistatu zuen Espainia (fol. 163r-191v).

V. Liburua: Santiago de Compostelara zihoazen pelegrien gida. Non gelditu behar zuten bidean, eta pausalekuotan zein erlikia behar zituzten ohoratu eta zein santutegi behar zituzten bisitatu, hala nola beste hainbat aholku ematen zituen bilduma (fol. 192r-213r).

Kodize eskuzkribatu hau Santiago de Compostelako katedralaren Kapituluko Artxiboetan dago gordea, eta bere bi kopia egin ziren. Bat Barzelonan, Aragoeko Koroaren Artxiboetan, Fondo Ripoll delakoan zaintzen den 99. eskuzkribua, eta Lisboako Liburutegi nazionalean fondo Alcobaça delakoan dagoena bestea.

André Moisan-ek<sup>29</sup> obra honen literatur iturriak aztertzerakoan eta ikerketa kritikoa egiterakoan dioskunez, oinarrizkoa izan zen sorketa honetan Diego Gelmirez eta 1119 urtean Calixto II.aren izenez aitasaindu hautatu zuten Gido Borgoñakoaren arteko adiskidantza; Gelmirez, Galiziako kondea, Gidoren anaia Raimundo Borgoñakoaren idazkari eta kantzilerra izan baitzen.

Jakina denez, Raimundo Alfonso VI.aren alaba Urracarekin ezkondua zegoen, eta Alfonso bere erresumak Europako kultur bideetan sartzeko politikagintzan abiatua zen, ezkontzen bitartez eta bi abadetegi handi San Zoilo de Carrión eta San Facundo de Sahagún delakoetan ezarri zituen Cluny-ko abadeen medioz.

29. André Moisan, *Le livre de Saint Jacques ou Codex Calixtinus de Compostelle. Étude critique et littéraire*. Paris, Honoré Champion, 1992.

Hauek, oztopo eta kontrako anitz gaudituz, errito mozarabea, bisigotikoa, gotikoa, eta isidorianoa ere deitzen zena, errito erromatarra eta unibertsalagatik aldatzen lagundu zioten.

Hala, adibidez, Jundane Jakobe Handiaren festa, hots, bere martirioarena edo *dies natalis* delakoa, ordurarte abenduaren 30ean, bere anaia Joanesenaren ondoren ospatzen zena, uztailaren 25era aldatu zen, nabarmen denez eguberri garaietan beste garrantzizkoago batzuek baitziren, honela neguko festa udakoa bilakatu zelarik.

Ez da, beraz, harrigarria hain inportantea eta famatua gertatzen ari zen santu batek bere bizitzaren eta mirarien gainean literatura ugaria sorraraztea, eta hau, inongo dudarik gabe aipatu *Codex Calixtinus* horretan oinarrituko da, zeinek erabereitsu Calixto IIak idatzitako zenbait izkribu hartuko dituen iturritzat.

Geroago Vincent de Beauvais, fraide dominiko frantsesak *Speculum doctrinale, historiale et naturale*, deitu entziklopedi antzeko liburu handi batean, hala nola Jacques de Voragine dominiko italiararenak, zeinek idatziko zuen *Legenda Aurea* izeneko bilduma, biak XIII. mende erditsutan, aipatu *Codex*-a bilduko dute eta itzuliko. Hauen eragina erdi aroko eta errenazimendu garaiko literaturan benetan handia izango da, genobesaren obra XV-XVI mendeetan berrogeita hamar aldiz gutxienez moldiztegitratua izan baitzen, J. de Vignay-ren lumaz izan zelarik frantseseratu.

Mende honen hasieran Paul Meyer filologoak Arsenal-eko liburutegian eskuzkribu bat ediren zuen (n<sup>o</sup> 3516), non beste sailduen bizitzen artean Jundane Jakoberen irakur zitekeen. Latinez eta frantsesez idatzia, badirudi XIII. mende hasierakoa dela. Ikerle romanistak dioenez<sup>30</sup>, badu testu frantsesak berezitasun bat, alegia, ez dela latinezkoaren hitzez-hitzezko itzulpena, nabarmentzen zaizkion errimek adierazten baitute argi eta garbi zortzi silabetan idatzitako poema bat duela iturburu. Noski, hau suntsiturik eta betirako desagerturik ez balego oraindik, nonbait izatekotan leku ezezagunean legoke.

Mirariak eta leiendak XIV. mendean hasiko dira antzertiaren moldeak hartzen, eta teatro bilakatzen. Gelditu zaizkigun errepertorio zaharrenak Britainia Handikoak dira, Francesc Massip-ek<sup>31</sup> agertzen digunez erdi aroko teatroaren historia aztertzerakoan. Kristau historia osoa tratatzen duten hogeita bost antzerki, hasi Luziferren erorketatik eta Eguberriraino, segi Pasiotik eta Azken Juiziorainokoekin bukatu arte osatzen den Chester-ko zikloa, 1325. urtekoa, alde batetik, eta berrogeita zortzi *miracle plays*, mirari antzerkiez osatua dagoen York-

30. P. Meyer, "La vie et la translation de Saint Jacques le Majeur mise en prose d'un poème perdu", *Romania*, n<sup>o</sup>121 (1902), Tome XXXI, 252-273. Paris, E. Bouillon.

31. Francesc Massip, *El Teatro Medieval*. Barcelona, Montesinos 1992, 41.

eko zikloa, 1350 urte ingurukoa bestetik, lirateke bilduma hauek. Konprenitzeko erdi aroko teatroaren bilakaera ongi deritzot Francisque Michel-ek<sup>32</sup> egiten duen eran Magnin-en hitzaldi batzuen ildoari jarraitzea. Honek argitzen digu pausu haundi batzuen bitartez, nola iritsi ziren sortzera misterioak. Teatroaren aro horiek ondokoak lirateke:

1. Politeismoaren eta kristautasunaren elkar bizitzaren aroa, IV. mendetik VI. ra doana.

2. Mundu Katolikoaren batasun aroa, apezgoaren botere eta jenioak gailurra lortu zuen unea, aro hieratikoa deitua, VII. mendetik XII. eraino doana. Epe honetan sortuak leudeke Birjin zuhur eta Birjin leloen lehen misterioak.

3. Ordurarte apezzen esparrua soilik izan zena laikoaren parte hartzera idekitzen da, eta indar handia hartuko dute honetan pietatez eta askatasun bozkarioz beterik ziren kofradiak. XII. mendean hasi eta hiru menderen buruan arteen sekularizazio osora eraman zuten aroa.

Hala bada, Pasioko kofradeak ez ziren izanen, Achille Jubinal-e<sup>33</sup> ustez, misterioak kantatzearekin konformatzen ziren juglarrak, ondorengo hobetuak baizik, ekinzak irudikatzen saiatu zirenak horrela ikusle goaren arreta handiagoa lortzearren.

Gaian sakonduz Barral i Altet-ek dioenez<sup>34</sup>, kofradiak santua ohoratu eta karitatezko obrak egiteko sortu kristau elkarte batzuek ziren. Beren araudi eta jazkera propioak zituzten, komunitatean ez bizi arren eta botorik ematen ez bazuten ere. Esate baterako, Jundane Jakoberen kofradiaren partaide izatera iristeko nahita nahiezkoa zen pelegri bezala Compostelara bidea egina izatea.

Bordeleko kofradia, adibidez, jada 1493. urtea aitzin eraikirik zena, XIX. mendean oraindik bizirik irauten zuen, eta Compiègne-koak 1466. eta 1539. urteen tartean urteoro *La vie et mystère de Saint James en personnages selon la légende*, antzezten zuen, bertan hiriko gazteek parte hartzen zutelarik, eta lan horrengatik deusere ordaintzen ez zitzaielarik, ez bazen agerlekua antolatzen, jaziak erosten, saioak bustitzen eta horrelako beharretan xahutzen zituzten sosalak<sup>35</sup>.

Badakigu ere *Histoire de Saint Jacques* izeneko obra bat antzeztu zela Friburgon (Suiza) 1470. urtean, Paul Aebischer-ek<sup>36</sup> adierazten digunez, eta berdi-

32. L.J.A. Mommerqué & Francisque Michel, *Théâtre français au moyen âge*. Paris, F. Didot, 1929.

33. Achille Jubinal, *Mystères inédits du quinzième siècle*. Paris, Téchener, 1837, xxx.

34. Xavier Barral i Altet, *Compostelle le grand chemin*. Paris, Gallimard, 1993.

35. Luis Vazquez de Parga, et al., *Las peregrinaciones a Santiago*. Madrid, CSIC, 1948. T.I, 250.

36. Paul Aebischer, "Théâtre médiéval dans le Pays de Vaud", *Neuf études sur le théâtre médiéval*. Genève, Droz, 1972, 173.

na Béthune-n (1491, 1503), eta Troyes-en (1523), Petit de Julleville-ren<sup>37</sup> informazioaren arabera. Hala nola italerazko drama bat XV. mendean, non Compostelara pelegri zihoan, familiako seme baten pizkundera<sup>38</sup> antzetzten zen. Bere aldetik Pablo Arribas-ek zehaztasun gehiago ematen dizkigu, aipatzerakoan delako *Confraternità di San Jacopo de Compostella*, delakoak Perugia-n *Il pellegrino, la forza e il gallo*<sup>39</sup> antzetztu zuela.

Halaber garai berdintsukoa behar du izan, M. Mille de Manosque-ren notariaren artxiboetan (Basses-Alpes) Camile Arnaud-ek, Marseille-ko epai-zibiletan juje zenak ediren zuen misterio baten zatia, *Ludus Sancti Jacobi*, izenekoa, 705 bertso-lerro dituen, probentzalez idatzia dena, eta 1496. data daramana.

Misteriogilerik famatuena artean Arnoul eta Simon Greban anaiak aurkitzen ditugu. Arnoul, XV. mende hasieran jaioa, agian Mans hirian, eta seguru Frantziako mendebaldean, 1444. eta 1446. urte inguruetan Arteetan maisu eta Teologian batxilerra izendatu zutena, Parisen Nôtre Dame-ko organista eta kapila maisu izan zena, *Mystère de la Passion*<sup>40</sup>, deitu misteriorik ospetsuenaren egilea dugu. Eta pixkat geroxeago bere anaia Simonekin 70.000 bertso-lerro inguru duen *Le Mystère des Actes des Apôtres*<sup>41</sup> idatzi zuen.

Azken hau Parfait anaien arabera, idatzi den misteriorik antzetsuena eta bertso-rik ederrenak dituen da. Mans-en, Angers-en, Bourges-en eta beste zenbait hiritan errepresentatu zen. Aipatu azken hiri honetan, anfiteatro zaharrean jokatu zen 1536. urtean, antzezleriak Claude Genthon alkatea eta bertako nobleak zirela apostolu lanetan. Aipagarria da ere, ikuskizunak berrogei egun iraun zuela, antzele ugari eta makina aparatu handiarekin, eta kronikek dioenez, hain izan zen ederra, eta pertsonaiek hain bereganatua zuten beren egitekoa, halako egiantzaz pintatzen zituzten beren keinu eta ekitaldiak, non ikusle goiak han gertatzen ari zena benetazkoa zela uste izan zuen. Alabat editoreak 1540. urtean Parisen moldiztegitatu zuen obra bi liburukitan, bakoitzak berrogeita zortzi bertso-lerroko bi zutabe eta ia mila orri zituela.

Jakina den bezala, misterioetan ekintza era askotakoak nahasten ziren, hala sakratuak nola profanoak, bai naturaz gairakoak, bai agerraldi komikoak.

37. Petit de Julleville, *Les mystères*. Paris, Hachette, 1880.

38. A.E. Rio, "De la poésie chrétienne dans son principe, dans sa matière et dans ses formes", *Forme de L'Art*, 2e partie, Paris, Debécourt, 1836, 173.

39. Pablo Arribas, *Pícaros y picaresca en el camino de Santiago*. Burgos, Librería Berceo, 1993.

40. Arnoul Greban, *Le Mystère de la Passion...* Traduction et présentation de Michelin de Combarien du Grès et Jean Subrenat. Paris, Gallimard, 1987.

41. *Mystère des Actes des Apostres traduit fidèlement à la vérité historique, écrite par Saint Luc à Theophile, et illustré des légendes authentiques et vies des saints reçues par L'Eglise. Tout ordonné par personnages dernièrement joué à Bourges et imprimés nouvellement à Paris, mil cinq cens quarante.*



Horrela aipatu apostoluen ekintzei buruzko misterioan, gameluak, dromedarioak, lehoiak, dragoiak, sugeak, deabruak, idoloak, etabar, ageri dira eta dena halako kantitatean, –laurehun pertsonaiekin gora–, Pariseko Parlamentuak debekatzeko dituen misterioak, espreski obra hori aipatzen duela, Raymond Lebègue-k azpimarratzen duen bezala. Hona zer zioen zehazki debekatuaren zati batek:

Ces gens non lettrés, ni entendus en telles affaires, condition infâme, comme un menuisier, un sergent à verge, un tapissier, un vençeur de poissons, qui ont fait jouer **Les Actes des Apôtres**, et qui, ajoutant pour les allonger plusieurs choses apocryphes et entremettant à la fin ou au commencement du jeu farces lascives et mômeries, ont fait durer leur jeu l'espace de six à sept mois, d'où sont advenus et adviennent cessation du service divin, refroidissement de charité et aumônes, adultères et fornications infinies, scandales, dérisions et moqueries<sup>42</sup>.

Inork ez du sinesten, ordea, 1548. urtean Pariseko Parlamentuak eman zuen debeku honekin misterioak desagertu zirenik, errepresentatzen eta moldiztegitzen jarraitu baitzuten.

Dena dela, jada argitarapenak ez dira hain zainduak eta ugariak izango. Lebègue-k Frantzia nola sortu zen erlijio tragedia aztertzen zuen beste lan batean<sup>43</sup> dioenez, non-nahi aurki zitezkeen Jundane Jakoberen kofradiak beren jaien eta ekintzen artean sailduaren bitzita antzeztzen jarraitu zutenak.

Hala, Lille-ko kofradia 1562. urtean Béthune-ra joango da santuaren bitzita errepresentatzera. Saint-Quentin-goak 1567. urtean *Mystère de Saint-Jacques* delakoa jokatu du, eta 1596. ean Limoges-koak Bardon<sup>44</sup> abokatuak gai berarekin moldatu tragedia antzeztuko.

Probintzietan, hala lege gizonak nola laborariak eta ofizio ezberdinetakoak, apez ez ziren gehienak, misterioen dibertimenduari atxikiak jarraitu zuten, eta gerra zibilen sarraskiak amaitu zirenean hasi ziren berriro antzeztzen misterioak, orain deitura aldatuz, tragediak deitzen zituztelarik.

Klasizismo frantsesak, XVII mendean sortu eta hedatuko denak, alde batetik egile grekarrak eta latindarrak izango dituzte nagusi bezala, eta bestetik Bibliako sujeta antzeztuak hartzen zituzten protestanteen tragediak.

Baina Bardon-ek Jundane Jakoberen gainean moldatu zuen tragedia, injenioz eta antzez beterikoak, ordea, ez du inongo antzik ez protestanteen tragediarekin,

42. Regine Pernoud, "Le Théâtre au Moyen Age", *Histoire des spectacles*, La Pléiade, Gallimard, 1965, 575.

43. Raymond Lebègue, *La Tragédie religieuse en France. Les débuts (1514-1573)*. Paris, Honoré Champion, 1929, 64.

44. B. Bardon, *Saint-Jacques, tragoédie, représentée publiquement à Lymoges par les confrères pèlerins du dict Saint, en l'année 1596, le jour et feste saint Jacques, 25 juillet, par...*, De Brun, Hugues Barbon, 1596.

ez klasizistenekin, ongi adierazi digutenez Koster Loukovich<sup>45</sup> eta Yves Lehir<sup>46</sup> literatur kritikariek.

Euskal Herrian ere ez zen Jundane Jakoberen kofradarik falta. Hala, badakigu XII. menderako bazela bat Lizarran, hirurogeita hamar kidek osatzen zutena, zeini Iruñeako apezpikuak, Pedro de Paris izenekoak, Santa Maria del Puy-ko eliza 1174. urtean eman zion<sup>47</sup>. Urruñan bertan, hau herri ttipia izan arren, sei kofradia ezberdin baziren, bat Jundane Jakoberen omenetan sortua. Baionakoaren estatutuak 1603. urtekoak dira. Kofradia honen Araudia esku artean izan dugu, eta 1789. urteko Iraultza arte iraun zuen, santuaren bezperan, egunean eta bihar-monean jai eta besta handiak ospatuz<sup>48</sup>.

Baionako eliz barrutian, Jundane Jakobe Handia hogeitabi elizetako sailu zaindaria da, Daranatz historiagileak zehazten digunez<sup>49</sup>, eta hauen artean aurkitzen dira Arboti-Zohota, Behobia eta Zuraidekoak Lapurdin, Bidaxunekoak Baxenabarran eta Laruns-ekoa Xohütan, Zuberoan.

Beste herrialdeetan gertatzen ohi zen bezalaxe ez zen izango, bada, harrigarri santuaren jai ospatu nahi izatea haren bizitza eta mirariak ikuskizun, tragedia eder baten bitartez.

### III. ESKUZKRIBUEZ

GEORGE HÉRELLE-k<sup>50</sup> Jundane Jakobe Handia tragediaren eskuzkribuez egiten digun deskripzioa zehatzena izan arren, puntu zenbaitetan bederen beharrezkoa du zuzenketaren bat, ondoren ikusiko dugun bezala. Hona Pariseko Liburutegi Nazionalan, fondo zelta eta euskaldunetan dagoenaz ematen digun aipamena hitzez-hitz:

1. BNP, FCB, n° 211. Demi-reliure en parchemin: papier vergé, 325 sur 210 mm; 36 feuillets à 2 colonnes, mauvais état. Complet, environ 1600 versets. Ex libris: Jn-Pre Saffores, avec date de 1634 (La date de 1634, très lisible, mais qui ne peut pas se rapporter à Saffores, a sans doute été reproduite d'après le ms dont celui-ci est la copie). Fin du XVIII siècle.

45. Koster Loukovitch, *L'évolution de la tragédie religieuse classique en France*. Genève, Slatkine reprints, 1977, 114.

46. Yves Lehir, *Les drames bibliques de 1541 à 1600*. Presse universitaires de Grenoble, 1974.

47. Luis Vazquez de Parga et al., *Aip. lib.*, 252.

48. Pantxika Béguerie, "Sanctuaires, dévotions et pèlerinages au Pays Basque français depuis le moyen-âge", *Ekaina*, n° 8, Bayonne, 193-211.

49. Jean Baptiste Daranatz, *L'Église de Bayonne*. Bayonne, Lasserre, 2<sup>me</sup> éd., 1924, 29.

50. George Hérelle, *Le répertoire du théâtre tragique*. Bayonne, Imp. Curieur, 1928, 46-48.

Parentesian eman duguna oin-oharrean dakar eta kopia zaharraz mintzo zaigu. Halaber, ex-libris bakarra aipatzen digu, baina benetan bi ex libris ditu. Bat lehen folioaren atzekoaldean esanez, Jn Bte Saffores-ena dela, eta bestea bukaeran 36. folioaren atzekaldean, non oraingo jabea Jean Pierre Saffores den, eta non argi eta garbi irakur daitekeen 1634.eko data. Hérèlle-k dioenez, lau bertsoleerrotako 1600 "bertset", estrofa inguru ditu, baina kontutan hartzen badugu guri iritsi zai-gun eskuzkribuan 15. folioaren ondoren itsuaren ixtorioa falta dela, hala nola ego-era tamalgarriagatik irakur ezin daitezkeen zatiak, baina Bordeleko eskuzkribuaren laguntzaz ongi leitzen direnak, orohar 1707 bertso beharko lituzke orijinalak.

Eskuzkribu hau Hérèlle-k 1911. urtean Jean Héguiphali, Xohütako errejentari erosi eta Pariseko liburutegi nazionalari oparitu zion (Don n<sup>o</sup> 4616). Esan bezala egoera txarrean dago, azpiko eskuinaldean ia irakurtezina da, hala nola bukaeraldeko erdiko partean, hau zulatua baitago. Merezki duelakoan bitxikeriak, aipatu nahi dut Julio de Urquijok<sup>51</sup> *Les quatre fils d'Aymon* eskuzkribuaren sarreran Xohütarrari buruz idatzitakoa. Honakoxea dio hain justu: ...*cahier appartient a Mr Héguiaphal de Cheraute bon garçon, grand coquin, Cheraut, le 25 avril 1894.*

Bertso asko marra batez ezabatuak daude, eta balirudike ezabatze horiek Baionako eskuzkribuaren kopiagileak eginak lirakeela, horiexek espreski falta baitira. Ezabatze marra okasio ugarietan ematen dira pertsonaien izenetan, hala Christine aniztetan tintaz estali da eta ordez Betrina idatzi. Gauza bera gertatzen da ere beste pertsonaiokin: Diego eta Carlos, Sedan eta Sacolan, etabarrekin.

Hona ondoren Bordeleko Herri Liburutegiko eskuzkribuaren deskripzioa:

2. Bordeaux, n<sup>o</sup> 4. Cahier sans couverture; papier vergé de grand format: 102 pages à 2 colonnes. Complet: 1520 versets comptés par le copiste. Ex libris daté: Pierre G., 1842. XIXe siècle.

Bigarren eskuzkribuaren zenbaki osoa, ordea, hau da: 1695-IV, eta bere kopia-gileak 1520 estrofa kontatu dituen arren zehazki 1600 ditu. Ex-libris-ak honelaxe dio, hain zuzen, *fait à Lichune le 5 mai 1842 par Pierre G.*, pentsarazten digunak errejenta Pierre Gorostibar zatekeela, honek zuzendu baitzuen Barkoxen, 1818. urteko uztailaren 19an *Les quatre fils d'Aymon* titulatzan den pastoralara.

Interesgarria da benetan, Parisekoaren hutsuneak irakurtzeko baliagarri dakigu-keelako. Halaber titulu osoa 86. estrofaren ondoren ematen digulako: *Tragedie compossée sur l'arrivée de St Jacques le majeur et sur miracles qui arriverent depuis quil etoit mort (sic).*

Pariseko eta Bordeleko eskuzkribuez aparte esan dugun bezala bada beste bat Baionako Herri Liburutegian, Hérèlle-k honela deskribitzen diguna:

51. Gipuzkoako Aldundiko Liburutegia. Fondo Julio de Urquijo, MS 7340.

3. Bayona, n° 48. Demi-reliure en parchemin; papier écolier, 350 sur 220 mm.: 34 feuillets à 2 colonnes. Un aquarelle ajoutée, représente une princesse, un roi chrétienne et un soldat chrétien...Complet. XIXe siècle.

Hiru eskuzkribuetarik berriena da, Santa Genobebaren pastoralarekin batera kaier batean gordetzen delarik. Badu gainera hasieran akuarela bat non irudikatua dauden eta ikus daitezkeen beren koloretan printzesa bat, errege giriztino eta soldadu giriztino bat ere. Oso egoera onean dago, eta 1460 estrofa ditu.

Hauetaz aparte aipatzen ditu Hérelle-k beste bi. Batek 18 zenbakia eta *Jondone Jacob* titulua ditu, baina zehazki Bordeleko eskuzkribu honek 1695-XII zenbakia du, eta ez dagokio Jundane Jakobe Handiaren bizitzari Testamentu zaharreko Jakobi baizik, Salvador Bartchargaray seminaristak idatzia da, eta beraz, Otto Stoll-ek emandako tituluz eta honen gainean Léon-ek ezartzen zituen dudak funtsezkoak ziren, bi pastoral ezberdinen aurrean gaudela nabarmena baita.

Beste eskuzkribua Larrieu doktorearena litzateke, baina honen paraderorik ez dakigu. Antzaenez 3000 estrofa behar zituen izan eta 1846. urteko data omen zeraman idatzirik.

Dena den gure eskuartean erabili ditugunak Parisekoa, Bordelekoa eta Baionakoa izan dira bakarrik, eta bereziki zaharrena.

#### IV. GAI NAGUSIAZ, KOMUNZTADUREZ ETA ALDAEREZ

**TRAGERIAREN** gai nagusia jakina delarik, hau bost partetan banaturik dago ohizko aitzin eta azken solasen artean, beraz, zazpi atal ditugu ondoren izendatu eta ikertuko ditugunak:

- a) Lehen Pheredikia.
- b) Jundane Jakoberen bizitza eta heriotza.
- c) Gorpuaren lekuz aldatzea Jerusalemetik Iria Flaviara.
- d) Mairu eta khristien arteko guda.
- e) Bostgarren miraria: Urkatu piztua.
- f) Jundane Jakobe eta Amerika.
- g) Azken Pheredikia.

##### a) Lehen Pheredikia

Errejentak "Le premier prologue" deitzen du, besteek "lehen pheredikia", edota "entrada" bezala izendatzen dutena. Hirurogeita hamazazpi bertso ditu, Bordeleko eskuzkribuak bat gehiago duen bitartean, laurogeita hamar dituela adierazi arren, eta Baionakoan sarrera falta da. Pastoral zaharrek bertso kopuru berdintsua edo gehiago zuten, hala *Edipak* hirurogeita hamar ditu eta *Saint Julien d'Antioche*

delakoak ehunda hamazazpi, baina egungoetan guttitu egin da, adibidez, Antoine d'Abbadieren bizitzaz Jean-Louis Davantek idatzitakoak hamar bakarrik dauzka. Ikuslegoari "compagna ouhouratia" agur eginez hasten da argituz errepresentatuko den gaia Jundane Jakobe Handiaren, Espainiako patroiairen bizitza izango dela, egiazko ixtorio bat. Aski hedaturiko tradizioa zen era horretan hastea misterioak, zeren lehen martirien ganean XV. mendean idatzi zen zikloan honako hau irakur baitezakegu ere:

*Laudate Dominum in santis eius  
Dieu Pere et Filz et Saint Esperit  
Sauve et gart ceste compaignie*<sup>52</sup>.

Eta gauza beretsua irakurtzen ahal da aipatu probentzerazko *Ludus Sancti Jacobi*-ren sarreran:

*Salut a tos ebonavio  
Ve vos aysi la companio  
Per vos autres bonas gens*<sup>53</sup>.

Alegia, hitz bera, *konpainia*, darabilte ikuslegoa adierazteko frantsesek, probentzalek eta euskaldunek, hala nola bretoieraz idazten zuten misteriogileek, zeinentzat ikusle taldea, hots, "compagnonez" delakoa "vertuus", "enorable" eta "meulabl" zen, beraz, birtuoso, ohoratia eta ospea merezi zuena, Anatole Le Braz ikerleak adierazten digunez<sup>54</sup>. Halaberetsu *Jean de Paris* pastoralean "compagna admirabilia" dugu ere, *Charlemagne*-n "populu admiragarria", *Saint Julien d'Antioche*-n "jaunac eta anderiac" dira osatzen dutenak ikuslegoa, *Cabalçar eta bere familia* astolasterrean "gente hounac", eta *Jouanic Hobe eta Arlaita*-n berriro "compagna ouhouratia", hau da, konpainia ohoretsua.

Formula berdinak aurki daitezke ere ahozko tradizioan. Noski, ohizko erretorika irudiaren aurrean ginategi, *captatio benevolentiae* delakoaren aitzinean.

Sarrera honek protagonistaren bizitza zertzeladak eta heriotze ondoko mirariak kontatzen dizkigu lerro nagusietan.

Nola ibili zen Jesukristoren ondoan dizipulu gisa, eta hau hiltzean nola haren dotrina zabaltzen ibili zen Espainian eta Jerusalemen; nola izendatu zuen Zaragozako apezpiku Athanase izeneko jarraitzailea eta honen apez, Theodose; nola agertu zitzaion Ama Birjina pilare baten ganean Josephaz-eko lurretan Ebro ibaiertzean, eta nola agindu zion Jesusen amak han bertan eraik zezan eliza bat, oso debozio eta arreta handiz burutu zuelarik agindua.

52. *Le Cycle de Mystères des premiers Martyrs*. Ed. de Graham A. Runnalls. Genève, Droz, 1976, 65.

53. *Ludus Sancti Jacobi*, Ed. de Camille Arnaud, Marseille, 1858, w 12-14.

54. Anatole Le Braz, *Le théâtre celtique*. 1er éd. 1905, Slatkine reprints, Genève-Paris, 1981, 404-405.

Azken gertaldi hau ez da ageri Voragine-ren obra nagusian, noski.

Kontatzen digu ere, Jerusalemera itzuli zenean juduen artean predikatzaera hauek haserretu egin zitzaizkiola, eta nola bidali zioten kontra egiteko Hermogena izeneko magoa eta honen ikasle Filleta, baina azken finean nola hauek Jakobe ezin menderaturik haren dotrinara konbertitu ziren. Horrela bada, ikusiz juduek, ezin zutela bide hartatik apostoluarekin, bi kapitain erromatar bidali zizkioten preso har zezaten, asanbladak eta istiluak sortzeagatik, eta Herodes Agripak epai baten ondoren erabaki zuen burua motz ziezaioten.

Ostean apostoluaren jarraitzaileek gorpua jaso eta itsasontzi batean enbarkatuz, itsaso Melidianua (Mediterraneo) eta Gibassarreko (Gibaltarko) hertsidura iragan zuten Galiziako kostara iritsiz. Hemen badago gertaldi bat bitxia Voragineren liburuan irakur daitekeena eta tragedian agertzen ez dena, eta da hainbat pintoreri inspiratu izan ohi dion erregina Luparen ixtorioa. Geroago Jundane Jakobe zaldi zuri baten gainean dohalarik errege giriztinoak lagunduko ditu mairuekin daukaten gellan, Clamvigeako (Clavijo) batailan garaipena Daramira (Ramiro) erregeari emanaz.

Era-beretsuan emanen dio garaipena Erregina Isabelari Ameriketako indioekin daraman gerran. Azkenik Errioxa aldean, Santo Domingo de la Calzadan (gaztelaniazko esaera zaharrak dioen bezala, *donde la gallina cantó después de asada*) gertatu mirari ospetsu batez, mintzatuko zaigu, alegia, nola urkatuak bizia berriro hartu zuen eta nola oilo zuriak eta oilarrek erre ondoren kantatu zuten.

## b) Jundane Jakoberen bizitza eta heriotza

Aitzin pheredikiaren ondoren Satan sartzen da agerlekuan Jupiterri dei eginez (77-91 b.)<sup>55</sup>. Ateratzen da gero Jundane Jakobe belaunikaturik<sup>56</sup> Jesusen dotrina kantatuz eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatuz hala nola pobreekiko erabili beharra daukagun karitatea oroitzuz. Bertso benetan hunkigarriak direnez ondoren emango ditut:

115 *Eta cieq aldiz praubiaq  
dutuçie mesperetchatcen  
eta aberaxaq aldiz  
orotan estimatçen.*

116 *Persouna diferencia eguliaq  
bekhatu du eguiten,  
reprenituriq dutien lequiaq  
violatu dielacoz ukhen.*

55. Agertaldi hau Bordele eta Baionako eskuzkribuetan falta da.

56. Hemen hasten da Baionako eskuzkribua.

Seraphis-<sup>57</sup> eta Baal-<sup>58</sup> sakrifizioak eskaintzen ageri dira ostean Fernando eta Pascalina errege-erreginak. Baina Jundane Jakobek Jesusez hitzeginez estatuez irudikatzen diren idolo faltsuak utz ditzaten eskatzen die, eta gaixorik zeukaten Philippe semea, eskuak gainean ezarriz, sendatu ondoren Jesukristoren federa bihurtarazten ditu errege (166-258 b.).

Berrito irtengo da Satan haserre amorratua Jakobe madarikatuz, idoloak sutara bota eta erregeak bataiatu dituelako. Une honetan azaltzen dira ere agerlekuan Gabiel eta Lien<sup>59</sup> aingeruak (261-288 b.).

Don Secon, Don Indaleça, Isiça, Tesiphon, Athanasa, eta Euphrasa izanen dira Jakoberen dizipulak, zein Zaragoza, Aragoeko hirinagusira iristen diren, eta non Athanasa apezpiku eta Theodora apez izendatuko dituen (289-428 b.).

Ama Birjina agertzen da geroxeago eliza bat bere ohoretan eraik dezaten eskatuz. Apostoluarekin duen elkarrizketa aingeruek kantatzen duten *Ave Maristella*-rekin bukatzen da (429-444 b.).

Jakobek eliza jasotzea Ciprien, Carleran eta George arkitektoei hala nola indar handiko diren Solido eta Horto maisu hargin eta igeltseroei agintzen die. Solidok bere lagunarekin komentatzen du, Zaragozako ardo xuri pitxerra edan ondoren gai dela hogeitakintaleko harria jasotzeko, erantzuten diolarik lagunak bera ere kapaza dela gauza bera egiteko. Indarren gainean nor gehiagokan jarduten dira gaur eguneko harri jasotzaileen dema balitz bezala, era honetako bertsoetan:

Solido

486 *Çaracoçeco ardou chouritiq  
picherra badut edaten  
hoguei quintale harri  
niq dit alchaturen.*

487 *Bai eta piteralia  
hoguei khana luçeriq  
eçariren dit bere lecquian  
escu batez harturiq.*

Horto

488 *Bai eta niq hirour picher  
ardou hartariq badut edaten  
hoguei quintale mourter  
burian dit idoquiren.*

---

57. Ejipziarren eta grekarren arteko jainko komun bat ipintearren Ejipton Ptolomeo Iak ezarri zuen kultura; emankortasunaren, marinelen eta Hilan Jainkoa.

58. Kananeanren, feniziarren eta aramearren jainkoa, hala hirien nola emankortasunaren jainkoa.

59. Bordelekoan Raphael.





- 489 *Hebroco uhaitceti q harigna  
aztaparca dit idoquiren  
eta plaça baten bethia mourter  
oren bathez eguinen.*
- 490 *Eta çuhain behar bada  
çerbait obragetaco  
hoguei lecoua huruntiq  
ossoriq dit ecarico.*
- 491 *Amourecatiq adarra q eta ezpalaq  
dutuquedan nouretaco  
daigun neguian goure etchen  
su houniq eguiteco.*
- 492 *Ardou chorta çounbaiten  
berotçez edateco  
etchequiliari eraiteco  
Brindo cavaillero!*

Eliza bukatzen dutenean hogei mila libera errezibituko dituzte eta horiek xahutzera ostatu batera joanen. Xorta bat baino gehiago ondoren mutur-joka hasten dira, eta horrelako okasioetan ohi bezala Satan ageriko da, oraingoa hirugarrena aldia delarik.

Bere ikasleak finko ikusi dituelarik Jundane Jakobek, Jerusalemeko bidea hartuko du, aditu baitu ez direla batere Jesusen zale. Hemen lehenik Filleta, Hermogenak bidalitako kontregilea topatzen du. Jakobek itsu bat sendatzen duenean bukatzen da eztabaida, Filleta mirari hura ikusitakoan konbertitu egiten baita. Hermogena zeharo haserre antze baten medioz Filleta harriturik uzten du, baina Jakobek oihal baten medioz enkantamendu hura desegiten du, une berean magoa ere konbertitzen delarik.

Benetan bitxia da ikustea zein nolako ikuspegi ezberdinak dituzten magia liburuaren gainean *Mystère des actes de apostres* delakoaren egileak diren Greban anaiak eta xuberotar trageriaren errejentak. Hona zer dioten frantses poetek:

Saint Jacques  
*Mieux vault les gecter en la mer,  
Affin que le faux sentement  
Ne puist vexer aucunement  
Les simples et les ygnorants<sup>60</sup>.*

Eta bestetik euskaldun teatrogileak, zein balirudikeen ez dela hain liburu zalea, konformatzen ez denez magia liburuak itsasora jaurtikiz, sutara botatzen dituzte:

60. M. Le Comte de Douhet, *Dictionnaire des Mystères*. Ed. Migne, Turnholti, 90.

762 *Eta magia libru hoyeq oro  
mementouan era eraçi  
su hortan barnialat  
mementouan ourthouqui. (Ourtouqi.)*

Abiatat apez nagusia, hala nola bere jarraitzaileak diren Samuel eta Josiaz erabat haserreturik dabilta apostoluaren arrakastaren aurrean, eta beraz, erabakitzen dute Lisias eta Themorita erromatar kapitainekin batuz Jakobe preso egitea eta Herodesen aitzinera eramatea, zeinek agintzen duen epaitu ondoren burua motz diezaioten.

Hau burutu aitzin, ordea, apostoluak aukera izaten du Theodoriq deitu paralitiko bat sendatzeko. Ekintza mirengarri honek, halere, ez du galerazten Tabor burumozleak bere eginkizuna bete dezan. Ekintza amaitutakoan ohi bezala, aingeruak ageriko dira kantari.

### **c) Gorpuaren lekuz aldatzea Jerusalemetik Iria Flaviara**

Jakoberen dizipuluak, untzian honen gorpua enbarkatu eta mirakuluzki itsaso Medilianua iragan ondoren Espainako lurretara iristen dira, Iria izena duen Galiziako herri txipito batera, hemen apostolu sailduak bedeinkatzen dituelarik, esanez, han gertatzen ari diren erreboluzione handiak berehala finituko direla bere presentziarekin.

### **d) Mairu eta khiristien arteko guda**

Inongo presentziorik gabe, bapatean, hainbat mende igaroak izan arren, agertzen dira mairuak, Maroc erregea buru dutela Sacolan, Frisco, Sedan eta Solimanekin batera, Alfontso erregeari ehun dontzeilen zerga ezarri nahirik.

Frisco joanen da mezulari khiristien erregearengana itunak zioenaren ordaina bila. Hauen ordezkari izanen dira Elisabet, Gracina eta Maria Antonio, zeinei jainko paganoak gurtzera ukatzen direlako buruak moztuko zaizkien, Elisabeti ezik, hau Maroc erregeak bere emaztezarako hautatu baitu.

Dena den kristau erregeek kunplitzen ez dutenez ehun dontzeilen urteoroko zergarekin, mairuak gerrarako prestatzen dira, hala nola khiristiak. Memento honetan agertzen da kexati Betrina, Euphraserekin enamoratua dagoena, bere adiskide Catrinari esanez, zein nolako bakardadean utziko duen bere senargaiak. Catrinak era beretsuan kontatzen dio, nola Pierrak abandonatu behar duen gerrara joateko, eta beraz honi konbentziarazi nahi dio gualostea utzi eta desertatu dezan, baina senargaiak ezezkoa ematen dio, ez baitu nahi bere burua koldar, beldurti eta bihotz-gabeko har dezaten, eta gerrara joaten da. Agertzen da Jakobe zaldi zuri baten gainean eta khiristiek gerra irabazten dute, sailduari esker.

Berriro ageriko da Satan, oraingoan ez ordea bakarrik bere “mithila” zerbitzariarekin baizik.

Errege kristauak mairuei ordaindu behar zieten ehun dontzeilen zergaren gainean literatur aski idatzi izan da bai gaztelaniaz, bai euskaraz.

Hala, Jesus Maria Leizaolak<sup>61</sup> besteen artean aipatzen digu, nola Gonzalo de Berceo errioxarrak XIII. mendean idatzi zuen *La Vida de Sant Millán* delakoaren 370. bertsoan hauxe irakur dezakegun:

*Mandó a los cristianos, el que el mal siglo prenda,  
que li diesen cada año LX dueñas en renda,  
las medias de lignaje, las medias chus sorrenda,  
jmal siglo haya preste que prenda tal ofrenda!*

Beste fraide batek, Arlanzakoak hain zuzen, XIII. mende erditsutan “cuaderna via” deitu bertso moldean ondu zuen *Poema de Fernán González* izendatua, non aipatu zerga honela agertzen den<sup>62</sup>:

*Habían en todo esto de a Almanzor dar  
cien doncellas hermosas que fuesen por casar,  
habíanlas por Castiella cada una buscar,  
habiendo de cumplir, pero con gran pesar.*

Oihenart literatur kritikariak bildu zuen bere 1665. urteko gutun batean, *L'Art Poétique Basque* deritzanean tradizioz zetorkion kanta bat, non neskati baten ahoan ezartzen diren bertsook:

*Andr'Emili, andre gora,  
ezin diro ogirik orha,  
artorik jorra hain guti,  
bihoa mairu herrin gora.*

*Saldu nintzen dirutan  
asko sari handitan  
ehun phizu urhetan eta  
berrehun dupha eztitan.*

*Aita nuen salzale,  
ama ditu harzale,  
anaierik xipiena  
mairuetarik khenzale.*

Halaber mende honetako poetarik handienetako batek, Lauaxetak<sup>63</sup>, gai hori inspirazio iturri harturik “Etxeko alaba” poema sortuko du:

61. Jesús María Leizaola, *Romances vascos y literatura prehistórica*. Buenos Aires, Ekin, 1969, 40.

62. Pablo Arribas, aip. lib., 381.

63. *Arrats-Beran*, Verdes, Bilbao, 1935, 85.

*Arrats-atsak daukoz bidiak!  
Lau zaldun datorz España'tik  
Mairu-erriko mairu baltzak  
Zidar eta urrez zamaturik...*

### **e) Bostgarren miraria: Urkatu piztua**

Jadanik behin baino gehiagotan aipaturik dugun *Codex Calixtinus* ospetsuan kontatzen diren mirarien artean bada bat berezia, eta inongo zalantzarik gabe famatuena: Urkatu piztuarena, hain zuzen. Tragerian 1352. bertsoetik 1597.era doa, ixtorioa honelaxe dena bere bertsoian.

Alexisek eta bere emazte Betrinak/Christinak Santiagora pelegri bezala joatea erabakitzen dute, Dominika semearekin batera. Ostatu hartzen dute bidean eta hemengo neskamea den Pascalina semeaz maitemintzen da, honek, ordea, uko egiten dio eta orduan neskameak bengantza asmatzen du. Sartzan du zilarrezko edalontzi bat Dominikaren zakuan, eta abiatzen direnean berriro, lapur gisara salatuak izango dira. Epaitzen dute Dominika eta urkatzen. Pena handiz jarraitzen diote bideari gurasoek eta itzultzerakoan leku beretik ohartzan dira semea oraindik bizirik irauten duela. Epailariei abisatzen diete, hauek ez dute sinesten, baina jateko ziren gerreneko oilar errekek kantatzen dutenean, ohartzan dira salaketa gezur hutsa izan zela eta, beraz, oraingoan justizia behar bezala eginez, neskamea urkabera eramango dute.

*Charlemagneren* pastorean mirari hau ere agertzen da, baina neskamearen izena ez da Pascalina Juliana baizik eta ez dute urkabera eramaten, sutara botatzen baizik. Aurrerago mintzatuko gara pittintxo bat xeheago gaiaz.

### **f) Jundane Jakobe eta Amerika**

Trageriaren amaierara iristen ari garelarik Jakobek beste ekintza miragarria burutzen du, eta oraingoan Ameriketako indioekin borrokan ari zaigun Isabela, Espainiako erreginaren alde izango da (1598 b.-1690 b.). Horrela misiolariak aukera izanen dute indioak paganismoa utziz egiazko erlijioan hezi eta irakatsarazteko.

Gertaera honekin ere, ohi bezala, ez bide da pozik egonen Satan, zein bere morroiarekin, alegia, Mithila deitu pertsonaiarekin agertuko den.

Pablo Arribas-ek azpimarratzen digun bezala, Bernal Díaz del Castillo soldadu kronikagilea aipatuz, bai Cortésekin eta bai Pizarrok indioekin zeramatzen gerletan beti batailan hasi aurretik Jundane Jakoberi zaindaritza eta babesa eskatzen zioten, honela Santiago matamoros zena mataindios bilakatuko zelarik, eta iritsi zen une bat non Indietako kronikagileek kontatzen zuten indioek berek ikusten zutela Jundane Jakoberen irudia espainolen gudalosteen buru zaldi gainean igoa.

Garcilaso de la Vega inkak 1535. urtean argitaratu zuen bere *Comentarios Reales* liburuan, esaten digu nola adertu zen Jundane Jakobe “*visiblemente delante de los españoles, que | indios, encima de un hermoso caballo blanco*”.

Hain hedatua izan zen Jakoberen irudia Ameriketara esan daitekeela patroirik famatuena beraxe dela, hau da, *Santiago Mataindios*, eta berari eskainirik dituela hamaika eliza. Dударik gabe santuaren bizitzaz aipatzen zuten frantses misterioetan ez zitekeen ageri gertaldi hau, zeinek bestetik iragartzen digun noiz zitekeen idatzia.

### g) Azken Pheredikia

“Le dernier dialogue” deitzen duena errejentak, beste batzuentzat *azken pheredikia* edo *sortida*, oso laburra da hamazazpi bertso besterik ez baitu. Bertan aitzin solasa kantatu duen antzezleri berak txapela eskuan duelarikan, eskerrak ematen dizkio ikusle goari ezarri duen arretagatik, barkazioa eskatzen egin akatsengatik, Santiagora bidaia egin dezaten gonbitea pasatzen, hala nola azken dantza batera eta afaltzera nor bere etxera.

Hona bukaera:

1706. *Gente hona q finitcen dut  
orai ene discousa  
eta cumitaçen deiçiet  
plaça hountan dançaçera.*

1707. *Cumitaçen çutiet orano  
guisa berian aihaitara  
bena gente hona q haregatiq  
nour çien etçetara.*

1708. *Çien çerbutçhari niz  
orai heben baratçen,  
(eta) gai houn bat deiçiet  
(placer) hanichequi desiratçen.*

## V. BOSTGARREN MIRARIAZ: URKATU BIZTUAZ

**BOSTGARREN** miraria aztertuko dugu kapitulu honetan, *le pendu dependu, el ahorcado descolgado*, delakoa edota urkatu biztua, alegia, ikusiz zein nolako bilakaera eta moldaerak izan dituen latinetik Europako beste zenbait hizkuntzataraz itzulua izan denean.

Gui de Bourgogne (1060-1124. inguru), Vienako artzapezpiku lehenik eta gero Cluny-n aitasaindu hautatuko zutena Calixto IIaren izenez, Jundane Jakoberi

buruzko zenbait liburuxkaren egilea dugu, eta hauetarik batek izen hau darama: *De Miraculis Sancti Jacobi*.

Liburutto honen hitzaurrean kontatzen digu, gaztetan, ikasle zela, eta haurtzarotik Jundane Jakoberen debozio handikoa izanik, lurralde eta probintzia basati hanitzetan nola ibilia zen, besteren artean, Galia, Teutonia, Italia, Ungaria eta Daciako paraje urrunetan sailduari buruz aipatzen ziren mirariak biltzen, eta nola hainbat eta hainbat asaldamendu eta ohoinketa pairatu ondoren, hamaika aldiz uretara erori arren, berekin beti zeraman eskuzkribua, *codex*-a, ez zen sekulan ez busti, ez lapurtua izan, eta nola behin agertu zitzaion Jundane Jakobe bera esanez: *Scribe quae caepisti, corrige scelera pravorum hospitem manentium in itinere apostoli mei.* (Entzun duzuna idatz ezazu eta zuzen itzazu nere apostolaren bidean diren ostalari gaiztoen krimenak).

Beraz, pelegriei oharrarazteko ostatuetan erne ibili zitezen eta bideetan adi-adi egon zitezen, dago idatzia liburuxka.

Hainbeste bertzio ezberdin izango dituen latinez idatzitako V. mirariaren oinarritzko testua honelaxe da, J.-P. Migne-k<sup>64</sup> plazaratu edizioaren arabera:

Anno Domini 1090, quidam Teutonici Sanctum Jacobum adierunt, et in urbe Tolosa a quodam burgense hospitio suscepti sunt, quos nocte inebrians scyphum argenteum in mantica eorum posuit, et mane exeuntes, quasi latrones in clamitans revocavit. At illi dixerunt ut illum puniret super quem pecuniam suam inveniret. Illosque discutiens in mantica patris et filii scyphum suum reperit, et sic eorum bona rapiens ad iudicium traxit. Cum ergo iudex unum tantum ex pietate juberet appendi; et pater tristis et anxius ad Sanctum Jacobum progreditur. Post xxxvi dies revertens, ad corpus filii adhuc-pendentis lamentando divertit. Cumque eum lacrymosis gemitibus in clamaret, ecce filius suspensus eum blande consolari coepit dicens: "Noli, pater dilectissime, flere, sed gaude quia nunquam fui mihi ita bonum. Nam hucusque sancti jacobus manus me sustentat, et me caelesti dulcedine refocillat." Quod pater audiens cucurrit ad urbem, et convocati populi viventem et sanum deponunt, et hospitem illorum illico suspenderunt.

Jakobe Voragine-k jaso zuen testu hau eta honen *Legenda Aurea*-tik José Manuel Macías fraideak<sup>65</sup> itzuli latinetik gaztelaniara, duela gutxi era honetara:

Hacia el año 1020 un alemán y un hijo suyo salieron de su tierra en viaje de peregrinación a Santiago, y al llegar a Tolosa decidieron pernóctar en un mesón. Durante la cena, el mesonero trató de embriagar al caballero alemán y lo consiguió; y, mientras el embriagado peregrino dormía profundamente, escondió en las alforjas de éste una copa

64. Calixtus II papa: *Libellus miraculorum S. Jacobi apostoli*. PATROLOGIAE cursus completus omnium ss patrum, doctorum scriptorumque sive latinorum, sive graecorum, accurate J.-P. Migne (1800-1875). Brepols, Turnhout, 1372.

65. Santiago de la Vorágine, *La leyenda dorada*. Trad. de J.M. Macías. Alianza editorial, 1982, T. I., 401-402.

de plata. Al día siguiente, en cuanto el padre y el hijo salieron de la posada para reempezar su camino y reiniciaron la marcha, el posadero corrió en pos de ellos gritando, llamándoles ladrones y diciendo a voces que le habían robado una copa de plata. Detúvose el alemán, negó la infamia que se le atribuía, propuso al mesonero que registrase su equipaje e hizo constar que, si en él encontraba el objeto cuyo robo le imputaba, se sometería de buen grado al castigo que la justicia le impusiese. El mesonero registró las alforjas del peregrino, halló en ellas la copa de que hablaba y, mostrando el cuerpo del delito, condujo a los delincuentes ante el juez de la ciudad, el cual, tras enterarse del caso, pronunció la siguiente sentencia: que se embargasen todas las cosas que padre e hijo llevasen consigo y se entregasen al mesonero; y que uno de ellos, bien el padre o bien el hijo, fuese públicamente ahorcado. El padre se ofreció para que lo ahorcasen a él queriendo a toda costa salvar la vida de su hijo; el hijo por su parte insistió en que el ahorcado debería ser él y no su padre. Después de larga porfía entre ambos piadosos contendientes para intentar cada uno de ellos salvar la vida del otro el juez zanjó el asunto determinando que se ahorcase al hijo, y el hijo fue ahorcado. Con el alma llena de pena prosiguió el padre su peregrinación a Santiago. Treinta y seis días más tarde, al pasar nuevamente por Tolosa en su viaje de regreso de Compostela en donde había visitado el sepulcro del apóstol, detúvose en el sitio en que su hijo había sido ejecutado, y al ver que su cuerpo continuaba colgando de la horca comenzó a llorar a voces; mas de pronto el hijo habló y dijo queriendo consolar a su padre: “¡Dulcísimo padre mío! ¡No llores! Quiero que sepas que jamás en mi vida lo he pasado tan bien. Desde que me colgaron en este patíbulo, el apóstol Santiago ha permanecido constantemente a mi lado sosteniéndome y colmando mi alma de inefables delicias celestiales”. Al oír que su hijo hablaba, y tras de escuchar lo que decía, el padre acudió corriendo a la ciudad y refirió a la gente el suceso que acababa de ocurrirle; muchísimas personas regresaron con él al lugar donde el hijo permanecía colgado, y comprobaron que estaba vivo. Inmediatamente lo descolgaron y vieron que, además de estar vivo, permanecía perfectamente sano. En seguida todos cayeron en la cuenta de que aquellos piadosos peregrinos habían sido víctimas de una calumnia levantada por el mesonero, y sin pérdida de tiempo, deseosos de vengar con sus propias manos la injuria hecha a los inocentes forasteros, corrieron a la posada, se apoderaron del posadero, lo llevaron al lugar en que el hijo del alemán había estado colgado y en la misma horca ahorcaron al infame mesonero.

Ohartu gaitzekke, ordea, Voragine-ren aldaera honetan hala nola Aimeric Picaud-ek idatzi *Codex-ean*<sup>66</sup> oinarrizko testua zertxobait zabaldu egin dela, handitu ohizko formulen bitartez, adibidez, *Memorie tradendum est*, delakoaz eta eskuzkribua gaztelaniara itzultzen duen XIV. mendeko testuak bukaeran honako eranskin morala dakarrela.

Por este miraglo podedes entender que non deven los omnes fazer mal nin tuerto a sus huéspedes nin a sus christianos, mas fazelle bien e aver dellos duelo, e rezebir los romeros e los huéspedes, e fazerles algo. Ca esto es obra de misericordia que Dios, que es Señor, les dé ende misericordia e gualardón en el su Santo Regno. Amén<sup>67</sup>.

66. *Liber sancti Jacobi. Codex Calixtinus*. Ed. Walter Muir Whitehill, Santiago de Compostela, 1944, 267-268.

67. *Los miraglos de Santiago (Biblioteca Nacional de Madrid MS 10252)*. Estudio y edición de Jane E. Connolly. Universidad de Salamanca, 1990, 60-61.

*Ars amplificatoria*, hedatze prozedura ezagunaren aurrean gaude, noski. Gaztelaniaz ez ezik bada ere gailegoz idatzitako mirarien itzulpen bat José Luis Pensado-k<sup>68</sup> argitaratua, baina tamalez honelaxe hasten den bostgarren mirakulua, *Eno âno da Encarnaçô de Nostro Señor de mill et noveenta anos hûms homes boos d'Alemaña que tragiâ grâde...* bertan amaitzen da jarraitu beharko liokeen folioa desagertu egin baita. Hain da mirari hau famatua, non *Cantigas de Santa María*<sup>69</sup> delako kantiga galaiko-portugesen bilduman, CLXXV.ean hain zuzen, irakur dezakegun beste bertsoen artean seigarren estrofan neskameak mutiko gazteari egindako bihurrikeria:

*E meté-o en o sacco  
do fillo et pois foi ydo,  
foi tan toste depós eles,  
metendo grand'apelido  
que lle levavan seu vaso  
de prata nov'e bronido;  
et poil-os oun'acalçados,  
dísse-lles:- Estad', estade-.  
Por dereito ten a Virgen  
a Sennor de lealtade.*

...

Bartzelonako Liburutegi Unibertsitariak ere badu eskuzkribu bat, non katalanez irakur daitekeen honela hasten den V. mirakulua: *Seguns ques recompte en los miracles de sênt Iâc.un hom de Teutonia anave en romeria a sent iaque e menave un fill seu iove e bell...* Eta beste era honetara amaitzen den: *Etentost tots anaren al loch on stave la forca e ab gran eucao e pler despemaren lo iove e tornaren los los bens quels havien pres e peniaren loste malvat*<sup>70</sup>.

Baina gailegoz bezala badu ere bost silabatako bertsoan Jaume Roig (XIV. m.a.-1478) maestreak bere *Spill o Llibre de les dones* izenekoan poema bat mirari bera kontatzen duena, eta non jada ostatua ez dagoen Frantziako Tolosan, Espainiako Santo Domingo de la Calzada-n baizik, eta neskame gaizto eta maltzurra prest puteriarako:

*[...] Una vil hosta,  
royn, disposta  
a putería,  
[...]  
per maravella*

68. J.L. Pensado, "Mirâgres de Santiago". *Revista de Filologia Española*, Anejo LXVIII, Madrid 1958.

69. Luis Vázquez de Parga et al., *Aip. lib.*, T. III, 155.

70. *Recull de exemplis e miracles, gestes e faules e altres ligendes ordenades por A-B-C*. Biblioteca universitaria de Barcelona, MS 89, f. 124v, 125r.



*dos cuyts ocells,  
 presents tots ells,  
 resuscitaren  
 e alt cantaren  
 gallina e gall.  
 Sens entrevall  
 l'hosta damnada  
 prest fon penjada*<sup>71</sup>.

Gorago aipatu dugun *Ludus Sancti Jacobi*-ren edireilea izan zen Arnaud probentzalak dioskunez, erdi aroan eta oraino errenazimenduan bizirik irauten zuen Probentzan jendaurrean misterioak errepresentatzeko ohiturak, eta hauek inongo dudarik gabe probentzeraz antzezten ziren, frantsesez ez baitzukeen ikusle goak tutik ere entendituko.

Argitaratu zigun antzerkiak, hain zuzen, bostgarren miraria du antzezgai, eta osorik ez eman arren *Codex*-eko ixtorioa, hau zabaldu eta handitu egiten da. 1496. urtekoa omen eta pertsonaia hauexek ditu: Nuncius, Pater (Lo Payre), Mater (La Mayre), Filius (Lo Filh), Lo Fol, Satan, Luciffer, Astorot, Belsabut, Bellial, Le viatant, Pêresso, Godel, Loste, Lostessa eta Beatrix gelazaina. Argi dagoenez zerrenda honen arabera satanek pastoraletan izaten ohi dituzten izen beretsuak daramatzate.

Eta, adibidez, hasieran aurkezle lanetan Nuncius delakoa alegia, mezularia, herriko kaletan barrena igandeko teatro ikuskizuna aldarrikatzen ageri zaigu, asto-lasterretan ere egiten ohi zen moduan:

*Un esemple vos demostren  
 Que vengas veyre lebtement  
 20 De sant Jame en beritat  
 Que si fara jousament  
 En esta plassa sertanament  
 E si Deu nos dona victoria  
 Dimenge jugaren lestoria.*

Eslobenieraz ere bada erromantze bat ixtorio bera kontatzen diguna, baina honek bere aldaera bitxiak ditu, zeren eztabaida alargun gazte baten eta seme ederraren artean baita. Hark bere alaba mutikoarekin ezkondu nahi duela, honek dio, eta ez dela pelegri bezala Santiagora abiatu ezkontzeko asmoz, penitentzia egin eta Jundane Jakobe gurtze gogoz baizik.

Arribasek bere liburuan ematen digun italierazko dramaren zatitxoak bizitasun handiagoa du oraindik, ezen honela entzun ditzakegun Jacopo eta Concetta berriketan, hobe esan, eztabaida bizian amodioa bitarteko:

71. Idem, 156-157.

**Jacopo:** Ti ho detto che non è possibile.

**Concetta:** Non se vale la pena...stupido presuntuoso. Per me hanno fatto pazzie nobili e villani, mercanti e cavalieri...Quanti pellegrini hanno pianto su queste mani, implorando un mio gesto, quanti bordoni ho visto spezzare per la disperazione nel patio dei cavalli...<sup>72</sup>

Badakigu, jakin, XVII. mendeaz geroztik batez ere mirakuluen eta misterioen literatur gaiak itxuraz aldatu egin zirela, jeneroz, alegia. Famatu *bibliothèque bleu*-an, liburutegi urdinean, narrazio eta kanta izan ziren ixtorio zaharrak era berritzeko modua, kontu eta kantagintzak ordezkatu zutelarik poesia eta teatroa. Hala Erruango hirian, 1603. urtean argitaratu zen hitz lauz Jundane Jakoberen bizitza eta martirioa, leku aldatze eta mirariak, bostgarren miraria hain zuzen, era honetan kontatzen delarik<sup>73</sup>:

Autre Miracle escrit par le S. pere Calixte

L'AN de nostre Seigneur 1090 quelques uns du pays de Flandres allant à Saint Jacques arriverent à Tholose, ou ils furent recevs au giste par quelqu'un des bourgeois, qui usa de si mauvaise foi envers eux que les ayant fait enyurer (come ceste nation est fort adonnee de boire à excez) ce mauvais hoste pour avoir occasion de ravir tout ce qu'ils avoyent, cacha durant la nuict une tasse ou coupe d'argent dedans l'une des mallettes de ces pelerins. Et le matin quand ils furent partis, il appella la justice & courut après eux disant qu'ils l'avoient desrobé. Ces pauvres pelerins ne sçachant rien du fait & sentant innocens dirent tous que celui fust puni qui seroit trouvé saisi du larcin. Et faisant la recherche, fut trouvé ce vaisseau d'argêt en la mallette d'un ieune homme qui avoit son pere avec luy. Et par ce moyen ce malicieux hoste ravit & èporta tout ce qu'ils avoyent, & les fit mener en iustice. Et par la sentence du luge (attendu qu'ils avoyent esté trouvez saisis) fut ordonné que l'un des deux seroit pendu, & côme le pere & le fils estoyêt en different, le Pere voulant mourir pour son fils, & au contraire le fils voullant mourir pour son Pere. Finalement le fils fut pendu au gibet & laisse côme mort. Ce fait le pauvre pere triste & dolent persevera à accomplir son voyage à Saint Jacqs. D'ou retournant arriva pres le lieu ou le corps de son fils estoit encore pendant au gibet, & y avoit ia trente six jours qu'il estoit là. Ce pauvre vieillard pleurant & gemissant aproche de ce gibet & voyant son fils avoit esté si malheureusement trahy à la mort, iettoit grande abondance de larmes, regretant son fils à haute voix. Et voicy que ce pauvre fils ainsi pendu appella son père & en le consolant doucement luy dist Mon pere ne pleurez point, mais vous resiouissez, car iamais ne me fut mieux, & n'ay este onque plus à mon aise que depuis que ie suis icy, car jusques a present le benoist Apostre Saint Jacqs me

72. Pablo Arribas, op. cit., 400.

73. *Histoire de la vie, predication, martyre, translation et miracles de Saint Jacques le Majeur Apostre de nostre Iesus Christ extraite & recueillie tant des saints Evangiles & Actes des Apostres, que de plusieurs graves Auteurs, tant anciens que modernes. Item le divin Office propre pour le jour de la feste Saint Jacques avec l'Office de la Messe propre, dudit S. Jacques. Plus le guide du chemin pour aller au voyage de Saint Jacques en Galice, Saint Salvateur, & nostre Dame du Mont-Serrat. Avec la Benediction des Pelerins & Bourdons. (Image de Saint Jacques pélerin). A ROUEN, Chez Loys Costé, 1603. 65-66.*

soustient, & me nourrist d'une celeste douceur. Le Bon Pere sort émerveillé, s'en va diligemment à la ville & appellant la justice si oster son fils vivant du gibet, où en son lieu le malheureux host fut pendu, & estranglé, par divin & juste iugement & tous ses biens confisqués & donnes à ces pauvres pelerins qui s'en retournerent ioyeux en leur maison.

Pelegrien kantikak, bestetik, oso arruntak ziren Erdi Aroaz geroztik, Edélestand Du Mériel-ek dioenez, irakur baitaiteke Paduako apezpiku izan zen Altman beatoaren bizitzan (+1091), delako Ezzo Scholasticus batek bere pelegrinajian ontzen zituela kantikak sorterriko hizkuntzan Kristoren mirakuluen gainean<sup>74</sup>.

Jundane Jakoberi buruzko kantikak aipatzen dira jadanik 1686. urteko Girardon-en katalogoan, eta Troyes-en 1718. urtean argitaratuak biltzen dizkigu Alexis Socard-ek<sup>75</sup>, zeinetarik batzuek, ikusiko dugun bezala, koplari xuberotar batek itzuli zituen.

Hona Euskal Herriko mugara iristean zerekin topo egiten duten errromesek:

VI *Changer falut nos gros blancs*  
*Quand nous fûmes dans Bayonne*  
*Nos quart d'écus qu'on nome francs*  
*Avec notre monnoie en sonne*  
*Semblablement notre couronne*  
*C'est pour la Biscaye passer*  
*Où il y a d'étrange monde*  
*On ne les entend pas parler*  
*Prions Jesus...&*

Antza denez, dirua trukatu, ezkutuak eta frankoak aldatu beharrean aurkitzen ziren Baionan eta Bizkaitik pasatzerakoan, eta ez zuten tutik ere entenditzen jende arrotz haiek mintzatzen zutena. Beste kanta batean gai berak aldaeraxo batzuek dituzte, koroak "fleur de lys" delakoetan aldatu beharrean aurkitzen baitira eta lurraldeari zakarra baiteritzote:

V *Quand nous fûmes à Bayonne*  
*Loin du pays*  
*Nous fallut changer nos couronnes*  
*En fleur de lys*  
*C'était pour passer le pays*  
*De la Biscaye*  
*C'était un pays rude à passer*  
*Qui n'entend le langage<sup>76</sup>.*

74. Edélestand Du Meril, *Poésies populaires latines du moyen âge*. 1<sup>o</sup>. éd., 1847, Slatkine reprints, Genève 1977, 57.

75. Alexis Socard, *Noels & Cantiques imprimés à Troyes depuis le XVII<sup>e</sup> siècle jusqu'à nos jours*. Paris, Auguste Aubry, 1865.

76. Xavier Barral i Altet, aip.lib., 141.

Dena den zeharo ezberdina izanen da Aimeric Picaud-ek euskaldunetz utzi zuen ikuspegia eta XVII-XVIII. mendeko erramesek utziko digutena, eta hala beharrez izango da, noski, bostehun urtetan eman zen aldaketa ez baitzen ttipia izan. Hona kanta batek dioena Donibane Lohizuneko jendearen karitateaz, edota San Adriango eritetxeko jan-edariez:

VI *Quand nous fûmes à Saint Jean de Luz  
Les biens de Dieu en abondance;  
Car ce sont gens de Dieu élus  
Des charités ont souvenance,  
Donnant aux pauvres chevance;  
Et de leurs biens en abondance  
Disant: vous aurez souvenance,  
Dieu vous conduise à sauvemen.*<sup>77</sup>

[...]

*Quand nous fûmes à la montée  
Saint Adrien est appelée  
Il y a un Hôpital fort plaisant  
Où les Pèlerins qui y passent  
Ont pain et vin pour leur argent.  
Nous prions, etc.*<sup>78</sup>

Hala Jundane Jakobe Handiaren tragerian, Ziburura iritsi direlarik, Alexisek eta Betrinak beren sosen kanbioak egiten dituzte, eta emazteak esaten dio senarrari ez dituela euskaldunak entelegatzen grekez mintzatuko balira baino haboro:

- 1374 Alexis  
*Ene espousa maitia,  
França igaran diçugu  
Donajouane Çuburuco  
azken herrian gutuçu.*
- 1375 Franciaco dihariaq behar dutugu  
*Espaignacouetara canbiatu  
eta heben behar diçugu  
baratu eta ostatatu.  
Betrina*
- 1376 Çer gente da heben  
*çer diroyen eztit enthelegatçen  
haborociez eta grecquez  
balimbalira ere mintçatçen.*

77. Alexis Socard, aip. lib., 79.

78. Alexis Socard, aip. lib., 89.

Beñat Oyharçabalek<sup>79</sup> *Charlemagne* pastoralaz egin edizioan, irakur dezakegu Bassagaix errejentak moldaturiko aldaera, non erromesak ez diren jada alemanak, ez flamandarrak, xuberotarrak baizik, eta seme bera, alegia, Domingo izenekoa, Teauda eta Aaron gurasoen fruitua, zein modu honetan agurtzen den bere jaioterriaz:

1323<sup>o</sup> *Ene Ayta Eta ama*  
*Behar badugu partytu*  
*Comfesionne honbedera*  
*Eguin Behardugu*

1324<sup>o</sup> *adoraceko apostolu haren*  
*Composstelaco hirin*  
*nouspat Regue christek*  
*ohoratu Cien lekyn*

1325<sup>o</sup> *jrabas ahal decagun*  
*moyen hares Celia*  
*gincouaren jcousteko*  
*Uken decagun gracia*

1326<sup>o</sup> *adyo oray Ciberou*  
*oray gutuk partycen*  
*gincouary En byhoces*  
*Benys gomendacen*

Jean Haritschelharrek<sup>80</sup> plazaratu zizkigun duela ez denbora asko pelegrien euskarazko kantak, Françoues Barrenqui barkoxtarrak 1809. urtean onduak. Eta ohar gaitzek lehen irakurketarekin argi eta garbi frantsesetik itzuliak direla ondorengo bi estrofetan nabarmentzen denez:

*Quand nous fumes à Saint Dominique*  
*Hélas, mon Dieu,*  
*Nous entrâmes dedans L'Eglise*  
*Pour prier Dieu.*  
*Le miracle du pèlerin*  
*Par notre adresse*  
*Avons oui le coq chanter,*  
*Dont nous fumes bien aise.*

*Saint Domingora nintzarian*  
*Elas, jinko jauna,*  
*Elizan barna sarthu nintzan*  
*Othoitze egitera.*  
*Han ikusi nin mirakuilu*  
*Pelegrier heltia,*  
*Oilarra entzun khantatzen*  
*Harekin oilo xuria.*

Ondoren ematen dugun pelegrien kantan ez da familia ageri ia, protagonista nagusiak bi adiskide izanen baitira, baina bestalde kantaren doinua zein zen adierazten zaigu:

79. Beñat Oyharçabal, *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 214.

80. Jean Haritschelhar, "Les chansons basques des pèlerins de Saint-Jacques de Compostelle", *Bulletin du Musée Basque*, Bayonne, 1966, 49-86.

## Histoire arrivée à deux pèlerins

Sur le Chant: **De la Boisie**

- 1 *Au nom du Seigneur souverain  
Secourez ces deux Pèlerins,  
L'entreprise et le bon voyage,  
Ayant fait voeu dévotement,  
D'aller à Saint Jacques le Grand,  
Se sont montées prudens et sages.*
- 2 *Ces chers Pèlerins François,  
Tous deux se promirent la foi,  
De vivre et mourir l'un pour l'autre,  
Dans toute adversité,  
Qu'il viendrait l'un à l'autre  
En leur nécessité.*
- 3 *Quand ils furent sur le chemin  
L'entretien de ses Pèlerins,  
Etoit de paroles très saintes,  
De vies des Saints par amour,  
Ils s'entretenoient chaque jour.  
Leurs âmes à Dieu étant sans feintes.*
- 4 *L'un dit, qu'il avoit des parens  
Sur le grand chemin passant,  
Il supplia son camarade  
De le suivre jusqu'au logis  
De ses parents et amis,  
Qu'il lui en feroit le semblable.*
- 5 *Le pauvre pèlerin honteux  
N'ayant pas connoissance d'eux  
Fort humblement le remercie;  
Son compagnon voyant cela,  
Le conduit tout d'un même pas  
Dans une Hôtellerie.*
- 6 *Incontinent qu'il fut arrivé,  
Très doucement il a posé  
Son bourdon derrière la porte  
Puis il demanda à souper,  
Et fut aussi-tôt se coucher,  
Ainsi que l'histoire rapporte.*
- 7 *Il avoit quantité d'argent,  
L'Hôte du logis très-méchant,  
Par une infâme perfidie,  
Et sa femme étant avec lui,  
Au pèlerin, sur le minuit,  
Méchamment ôtèrent la vie.*
- 8 *Le lendemain de bon matin,  
Son camarade pour le certain,  
Demande en l'hôtellerie,  
Mon compagnon est-il parti,  
L'Hôte lui répond qu'oui  
Il est bien loin je certifie.*
- 9 *Mais il aperçut le Bourdon  
Et le sac de son compagnon,  
Pareillement une Gondole,  
Le pèlerin en grand souci,  
Dit: Votre discours est frivole,  
Et mon camarade est ici.*
- 10 *Pour en mieux savoir la raison,  
Il a fait mettre en prison  
Le maître et la maîtresse;  
La servante tout soudain  
Le confessa à pur et à plein  
Ayant le coeur plein de tristesse.*
- 11 *Ils furent d'abord condamnés,  
D'être pendus et étranglés,  
Ayant fait amende honorable,  
La servante, pour le certain,  
En sortit sans lui faire rien,  
Du meurtre n'étant pas coupable.*
- 12 *Ce pèlerin de Dieu aimé,  
Son compagnon fit embaumer,  
Et le fit mettre en bière,  
Et le porta légèrement  
Jusqu'à Saint Jacques le grand,  
D'un amour très-particulier.*
- 13 *Etant à Saint-Jacques arrivés,  
Tout doucement l'a posé,  
Et fit célébrer une Messe,  
En sortant de ce lieu sacré,  
Un ombre le vint embrasser,  
Avec grand amour et tendresse.*
- 14 *Une voix lui dit doucement,  
Tu m'as rétiré du tourment,  
Mon camarade fidèle,  
Tu as fait le voyage pour moi,  
Et je vais prier pour toi  
Jesus dans la gloire éternelle.*
- 15 *Nous prions Dieu dévotement,  
Et, monsieur S. Jacques le Grand  
Qu'un jour avec les Archanges,  
Nous puissions chanter hautement  
Et crier tous ensemblement  
Vive Jesus, le Roi des Anges.*

Laburbildu eginen ditugu ondoren mirariaren euskal bi aldaerak, Saffores eta Bassagaix deituko ditugunak, eman berri dugun kantarenarekin, gaien haria konpara dezagun:

### a) Saffores

Alexisek, bere emazteak (Betrina/Christina) eta beren seme Domingok Compostelara joatea erabakitzen dute. Iristen dira Donajouanera, *Zuburuko azken herrira* (sic), diruak trukutzen dituzte, eta Euskal Herritik igarotzean ez dute euskaldunen hizkuntza entenditzen. Antonio eta Pascalineren ostatuan gelditzen dira. Azken hau Domingoz maitemintzen da, baina honen ezezkoaren aurrean bengantzaz zilarrezko edalontzi bat sartzen du gaztearen poltsan. Salatu eginen du gero lapurretaz, eta aurkitzen dutenean kopa, epaitu eginen dute eta herriko plazan urkatu. Oso penaturik joaten dira gurasoak Santiagora eta itzultzerakoan ohartzen dira bizirik jarraitzen duela semeak. Honek prebostearengana joan daitezzen eskatzen die, eta kontatzen diotenean ixtorioa honek honela erantzuten die,

1548 *O bai hire semia  
orai dun han biçiriq  
noula eta beitira  
guereneco oillasco horiq.*  
(Guerena gorda eta aguer bi oillasco biciriq eguin ququruqu).

Mirakuluaren aurrean Pascalina preso hartzen dute, eta urkabera eramango. Ondoren gorpua sasira botako zakurrek jan dezaten.

### b) Bassagaix

Aron aita, Teuda ama eta Domingo semea irteten dira peleginarian Santiagorantz, Zuberoako herriari agur egin ondoren. Valladolid eskuinean utzi eta gero Leonera iristen dira, non Julana ostalariak errebitzen dituen. Afalondoan beren ganbaretara doaz, eta une honetan Julianak ahaleginak egiten ditu Domingorekin oheratzeko. Hau ez da tentazioan erortzen eta orduan bengantzaz neskameak zilarrezko gandola zakuan sartzen dio, gero lapurretaz salatzen, eta, azkenean epaia egin ondoren, Domingo urkabera eramanen dute. Amak eskatzen du hamar eguneko epea, Santiagotik itzuli arte ez dezatela urka. Baina epea pasa eta urkatu eginen dute Domingo. Itzultzen direnean gurasoak Santiagotik, semea oraindik urkabean bizirik dago eta aita-amari eskatzen die epailariengana joan daitezzen. Hauek abisuaren aurrean honakoa erantzuten diete:

1494<sup>o</sup> *poularda Eta olasco haur  
orobat bycy dutucu  
Eta hoyak ere suian  
aroztiturik dutucu.*  
(Jaky poularda Eta olascoua Eta Cantacen has platin).

Ohartuz mirariaz Domingorengana joaten dira eta urkabera joanez bertatik jais-ten dute. Artzapezpikuak jakin duenean mirariaren berri sainduaren ohoretan prozesioa antolatzen du, eta gero lurperatzen dute Domingo. Julana, berriz, Teodomir artzapezpikuak zamari baten isatzari lotua izan dadin eta herrian zehar arrastaka ibili ondoren bizirik sutara bota dezaten kondenatuko du. Erretiratzen direnean, burreua eta Julana gelditzen dira bakarrik agerlekuan, honek eskatzen diolarik gaztediari hartan etsenplua har dezan

### c) Bi peregrien kanta

Behin batean bi pelegri frantses abiatu ziren Santiagorantz elkarri promesa egin ondoren, memento orotan lagunduko ziotela batak besteari. Bidean zerabiltzaten elkarriketak saildu bizitzen eredu ganean ziren. Bat ostatatu zen gurasoak eta lagunak zituen lekuan, eta bestea ostatu batean, afaldu ondoren berehala lotara joan zelarik. Ostalariak eta honen emazte maltzurak lapurreta burutzearen erro- mesari bizitza kendu zioten.

Biharamonean laguna bila joan zitzaionean bidea elkarrekin egiteko, ostalariak erantzun zion joana zela, baina adiskidea ohartu zen ezinezkoa zela zakua hantxe baitzegoen ateostean, eta esan zion ostalariari: *Alferrik zabilta, nere laguna hemendik behar du*. Preso hartu zituzten ostalari senar-emazteak eta hauen nes- kamea. Honek epailarien aurrean egia aitortu zuen eta askatasuna irabazi, ez bai- tzen parte hartu hilketan, besteak urkatuak izan zirelarik.

Pelegriak bere adiskidearen gorpua enbalsamarazi zuen eta berekin eraman zuen Santiagora. Honera iristerakoan Meza bat emanarazi zuen eta elizatik irtete- rakoan, atarian itzal batek besarkatu zuen amodio eta eztitasun handiz, eta ahots gozo batek esan zion: *Adixkide leial eta zintzoa, tormentoetatik atera nauzu, neregatik egin duzun bidez, nik ordainez Jesusi erregutuko diot zure alde*.

Jakina den bezala, ordea, ez ziren erromes guztiak hain sainduak. Adibidez, Euskal Herritik Arnold von Harff, Colonia-ko zaldunak iragaiterakoan behar-behar- rezko zituen gauzen hiztegitxo bat burutu zuen, eta ogia, ardoa, ura eta gaztare- kin batera beste solas hau ere ikasi zuen: *Neskatoa, nahi duzu nerekin etzan?*<sup>81</sup>

Aski direla uste dut adibide hauek pentsarazteko euskal trageriak harreman handiagoa duela Jundane Jakoberen misterioarekin, edota probentzerazko joko- arekin, hauen ondorengo emaitzekin baino, hots, Bardon-en tragedia klasikoarekin, edota "colportage" delako soka-literaturarekin, zeren ez Alexandre Assier-en<sup>82</sup>, ez

81. Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro, 1964, 63.

82. Alexandre Assier, *La bibliothèque bleue depuis Jean Oudot le jusqu'à M. Baudot. 1600-1863*. Paris, Champion, 1874.



Lise Andries-en<sup>83</sup> katalogoetan ez dugu ediren Jundane Jakoberen bizitzaz, heriotzaz eta mirariez 1603. urtean Erruanen argitaratu liburua besterik.

Agian xubererazko testua nahaste baten ondorioa litzateke, materialak iturri ezberdinak litzuketeelarik: Voragine-ren testua, Greban anaien misterioak, kantak, kronika ezberdinak, etabar.

Eta hipotesi gisara, hona nerea.

Ez litzateke harrigarria Atharratzen edo Zuberoako beste herriren batean Santiagorako bidean egun batzuk igaro zituen erromes batek, eta berekin frantses kantak edota misterioa zeramatzakeenak bertako letradunen bati (errejenta, seminaria, uxierra, apeza...) eskuzkribuak utzi izana. Honek kopiatu, eta gero lasaia-go negu gorrietako egun luzeetan euskarara itzuli eta egokitu ondoren, antzetzeko betiko ohiturari jarraikiz, plazaratu izana uda partean herriko gaztediak.

## VI. PERTSONAIEZ ETA JOKAERAZ

WENTWORTH WEBSTER, euskal literaturaren ikerle ingelesak Donibane Lohitzunen 1897. urtean euskal gaiez eman ziren hitzaldietan pastorala aztertu zuen, zioelarik, Petit de Julleville-rekin bat zetorrela kontsideratzerakoan erdi aroko teatroak, eta bereziki misterioek, kontutan harturik nola antzetzten zen leku ideki batean, nola idekitzen zen aitzin-solas batekin eta ixten azken-solas baten medioz, eta bertan koroak, kantak eta dantzak zuten garrantzia, antza handiagoa zeukatela Greziako antzertiarekin, teatro frantses klasikoarekin baino. Hona teatro frantsesaren eta euskaldunaren aztertzaileen hitzak:

“Il est curieux d’observer que le théâtre au moyen âge, quoiqu’il ait péri sous les coups des disciples et des adorateurs de l’antiquité, ressemblait bien plus au théâtre des Grecs que le théâtre classique (français), qui l’a dépossédé et détruit au nom des Grecs. Le mystère ressemble au drame grec au moins en ce point, qu’il célèbre lui aussi l’histoire des dieux et des demi-dieux, j’entends de la divinité, des saints, des martyrs, qu’adoraient ou honoraient le peuple et le temps où il a fleuri.” Comme au fond de chaque tragédie grecque nous voyons la figure à moitié cachée du Destin, de la Fatalité, et de cette loi suprême à laquelle les Dieux, aussi bien que les mortels, sont obligés de se soumettre; ainsi, par l’introduction des satans et des Turcs, toute pastorale devient, quel qu’en soit le sujet accidentel, un épisode de la lutte éternelle du bien contre le mal, de la guerre entre Satan et le bon Dieu, où la victoire reste toujours à celui-ci, mais où l’autre, quoique toujours vaincu, ne se rend jamais<sup>84</sup>.

83. Lise Andries, *La bibliothèque bleue au dix-huitième siècle, une tradition éditoriale*. Oxford, The Voltaire Foundation, 1989.

84. Wentworth Webster, “Les pastorales basques”, *La Tradition au Pays Basque*. Congrès de Saint-Jean de-Luz, 1897, Reed., Elkar, Donostia, 1982, 246.

Alegia, zena zela gaia, azken finean, fatuek hala agindurik bai jainkoei eta bai gizonai, Ongiaren eta Gaizkiaren betiereko gertaeren ekitaldi batean bilakatzen zela. Beste ikerle batek, George Hérèle-k<sup>85</sup> ordea, jainkoei eta deabruen munduaz aparte, hots, bi mundu horien kontrajartzeaz gain, beste mundu bat bazela pastoraletan, zioen, eta hau gizonarena zela, noski. Baina funtsean khiristian eta turken arteko borrokan legoke jokoaren ardatz nagusia. Jundane Jakobe Handiaren tragerian berdina gertatzen da ondoren ematen ditugun lau konpainia ezberdinetan iritsi arren oholtegi gainera: a) Jakobe eta aingeruak; b) Khiristiak; c) Turkak; eta d) Satan eta Filleta.

Lehen munduan, Jainko onaren aldeko partaideak leudeke, adibidez, Jesukristo, Ama Birjina, Jundane Juhane Baptista, Jundane Jouhane eta Jundane Phetiri, Jesusen dizipuluak, Grabieli-Lien (Raphael) aingeruak, eta bereziki aztergai dugun tragerian, Jundane Jakobe Handia.

Pastoral gehienetan ez Jainkoa, eta ez Jesukristo ez dira errepresentatzen, halako lotsaizuna sentitzen baitzuten euskal antzezlariek beren ezteusa, ezereza eta jakituri eza konparaturik irudikatu behar zuketaren goi maila eta handitasunarekin, eta hala, Jundane Jakobe Handiaren lehen pheredikian honako bertsoak irakur ditzakegu:

- 11 *Ikhousi çien cruçificatçen  
eta resuçitaçen  
bena hayetariq deusere  
eztugu representaçen*
- 12 *Çeren ezpeiquirade gu  
Jesusen representatçeco capaule  
hori dela causa populia  
eçin ausartçen guirade.*

Aingeruen errepresentatzeko ohizkoa izan da mutil kozkor batzuek hautatzea batez ere ahots edertasunarengatik, eta Jakobereanean errejentak ematen ez dituen, baina jakintzat ematen diren IX. mende inguruko *Ave Maristella* (428. b.) kanta anonimoa<sup>86</sup>, eta oraindik zaharragoa eta berdin egile ezezagunarena, VII. mendekoa den *Martiren Himnia*<sup>87</sup> (1051. b.) kantatu behar dute.

85. George Hérèle, *La représentation des pastorales à sujets tragiques*. Paris, Champion, 1923.

86. Hona lehen estrofa latinez: *Ave maris stella / Dei mater alma / atque semper virgo / felix caeli porta...* (*The Oxford Book of Medieval Latin Verse*, Ed. F.J.E. Raby, Oxford, Clarendon press, 1959, 94). Euskaraz honela itzulia izan dena: *Agur, itsas-izar, hoin gozoz bethea! / Jainkoaren Ama, zeruko athea! (Gabriel Lertxundi, Kantikak. Belloc, 1948, 299).*

87. *Sacratissimi martyres summi Dei, / bellatores fortissimi Christi regis, / potentissimi duces exercitus Dei, / victores in caelis Deo canentes: Alleluia.* (*The Oxford...*, aip. lib., 71)

Satan arruntki bere sataneriarekin agertzen ohi da, hots, Jupiter, Bulgifer, Belzebuth, Aztaroth izena daramatenekin, baina trageria honetan zerbitzari bat bakarrik dauka, Mithila izenekoa, hau dela eta ez du honek izen propio berezirik.

Jakina da Satan ikuskizuneko pertsonairik nagusienetakoa, era berean irri eragingarri eta dantzari dela, kharistian kontra, alegia, turken faboretan dabilena beti, eta gaiztoak infernuratzen dituena. Hala Pascalina, urkatu ondoren teatro erdian idekirik dagoen zulo batetik beheiti jaurtikia izanen da. *Urca eta eçar triatepialat* dio akotazioak.

Jakoberen tragerian inongo akotazioarik ez oharrik ez den arren janzkerez, gaur egun xaka gorri urrez bandatuarekin jazten dira.

Zalgizen 1769. urtean antzeztu zen *Petit Jean eta Sebadina*<sup>88</sup> astolasterrean satanak ehiztari arropez jantzirik daude, eta 1780. urtean Josef Eguiateguy<sup>89</sup> euskaraz idatzitako lehen filosofia liburuan, pastoraletako maskaraz mintzo zaigu: *Mündü güzia ari delarik txarlatanen gisala, pastoraletan mozorroa beti begi-tartean nahi girade agertü ezkiradeanak...*

Agian, mozorro honek, geroago kenduko bazen ere, Italiako teatroan bezalaxe balio zezakeen, aurpegia estaltzeko. Horrela aktorearen nortasuna ezkutuan mantenduz, antze eta artifizio txipi batez baliatuko zen sua ahotik jaurtikitzeko eta hala egiantzaren lortzeko.

Sataneria beti ezker atetik, hau da, ikuslegoaren eskuineko aldetik irteten da agerlekura, eta egun funtzio ia koreografiko hutsa dauka.

Garai batean zerabiltzan solasak hain ziren likitsak non mende hau oso aurrera joan arte apezak ez ziren joaten horrexegatik ikustera, eta ikuskizunaren kontrakoak ziren mende hasierako Baionako apezpikuak egin enkueta batek agertzen duenez. Denboren aldaketen paradigma litzateke Piarres Lafitte, zein mintzatzen zaigun 1922. urtean, 52an eta 80an satanen funtzioez, hain zuzen.

*Robert le Diable*, komentatzerakoan sataneriaren kentze aldeko agertzen zaigu. Hona bere hitzak:

Labur bide bat litekela sataneria guziaren edekitzea, hori bai, Satanek denbora sobe-  
ra baderamate jauzika eta ditzoka, dabilzan gertakariekin deus egitekorik ez duten dan-  
tza eta tortiko batzutan. Are berez, ezin aipatzeko harrokeria eta lizunkeria moltzo bat  
liteke gutiago. Ezen satanek darabiltzkiten solasak ardura izigarriak dira likitsak.

88. Patri Urkizu, *Zuberoako irri teatroa: Astolasterrak*. Donostia, GK, 1988, 98.

89. Josef Eguiateguy, *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*. Ed. Txomin Peillen, Bilbo, Euskaltzaindia, 1983, 77.

Nazioarteko bigarren gerrate handiaren ondoren, 1952. urtean Marzelin Heguiaphalek zuzendutako *Juana Arkekuaren* ikuskizunaren aurrean, ordea, kexu izango da, satanek beren benetazko funtzioa galdu dutelako, jauzikari eta dantzari huts bilakatuz, *satans* izatetik *sautants* izatera iragan. Eta azkenik, 1980.ean Etxahun-Irurikoak ohizko gaiak aldatuz *Iparragirre* taularatzen duenean, azpimarratuko du nola antzinako ohitura berrartu den eta nola ikusliarrak bozkarioz beterik dauden iturburuetara jo delako, alegia, satanei hitza itzuli zaielako, eta ez direlako koreografiako elementu hutsak, baina, erne behar dela egon, solasak beren ausarkerietan urrunegi joan ez daitezen<sup>90</sup>.

Francesc Massip-ek<sup>91</sup> erdi aroko teatro katalanaren musika aztertzerakoan komentatzen digu, nola Hildegard von Bingen-en (1098-1179) *Ordo Virtutum* ezagunean deabruari musikaren ahalmena ukatzen zaion, ulertzen baita musika harmoniaren espresabidea dela, eta, ezin zaiola inolaz ere dohain hori gizonari kentzen ahalegin guztiak egiten dituen Satani eman.

Hona aipatu dugunaren bertso adierazgarriak. Alde batetik ikus dezakegu nola atxikia zaion Satan dantzari, eta bere hizkera lohia bestetik:

- Filleta
- 89 *Avança çite Satan*  
*eta sar triate hountan*  
*aire bedera dança deçagun*  
*hiroureq algarrequila.*  
 [...]
- Satan
- 91 *Voila qui fet jaunaq*  
*nahi niz avançatu*  
*alo sonu eguiliaq berhala*  
*behar duçie aire bat sonatu.*  
 [...]
- Mithila
- 1158 *Alo Catrina eta Betrina*  
*corage ucquen eçaçie*  
*eta putaneria hortan*  
*sinhesta bethiere.* (Passeya...Satanaq guero dantça.)

Satanak dira trageriaren harian biziatsun gehiena ematen diotenak gaiari, *ghiristièn* kontra eta *trucqen* alde beren buruak ageriz, alegia, Gaizkiaren faboretan beti, eta ez da hau xuberotarren antzertian gertatzen bakarrik, katalanean ere berdintsu gertatzen baita Boadella<sup>92</sup> zuzendariak esaten digunez:

90. Piarres Lafitte, *Euskal literaturaz*. P. Urkizuren edizioa, Donostia, Erein, 1990, 17-18.

91. Francesc Massip, "El repertorio musical en el teatro medieval catalán", *Revista de musicología* X, nº 3, Madrid, 1988, 722.

92. "Impresiones de Boadella sobre la Pastoral Vasca", *Antzerti Berezia*, 4, Donostia, 1983, 2.

Uno observa que incluso aquí en Cataluña en los pastorales o en las Pasions, que cuando sale el diablo es cuando surge el auténtico teatro y la gente disfruta, y es lo que está esperando ver. Porque el Mal es más espectacular que el Bien, que adolece de algo, es más afeminado y acaramelado. Esto para mí es una teoría teatral. El Mal es siempre más espectacular, tiene más colorido y más rasgos folklóricos.

Bi mundu horien bereizteko ohizko ezberdintasunez aparte (jazkerak, sarrera-irteera ateak, musika, hizkera...) erants dakiekeegu koloreen erabilera. Hala, urdina daramatenak onak dira, eta gorria daukatenak gaiztoak. Andere batek zinta urdina badarama, argi dago khiristien taldekoa izanen dela, eta gorria balerama, aldiz, turkena. Logika hau *Abraham* pastoralean artaldeetara ere eraman zen, Abrahamenak urdin zinta bat baitzeramaten, Lothenak gorria zeramaten bitartean.

Dena den, trageriak ez du, agerlekuan egin behar diren mugimenduei buruzko ohar askorik. Ehunda berrogeita hamarren bat perpaus labur soilik dakartza, gehienak aginterazko aditz bat, izen bat, edota esaldi ttipi bat direlarik.

Hona adibide batzuek: *sognu, bellarica, has, passeya, bara, retina, jalqui, canta, escuignetic, esquerretic, erditic, batailla, sar triatian, sar ounçian, urca eta eçar triatepialat, pot eguin haurrari, eguin khuruchiaren seignalia haurrari, eçar mitria burian, eçar khurutchia lepouan, eçar arropa soignian, eçar bunet carratia burian, esquiaz eguin borontian curutche, hel buriala han bara, lot billhoetariq, moutz buriaq ourthouqui taulapetara, jalqui bi ainguriaq espatequi erdiala, jouan çamarietan oro, oillascouacq eçar eratcen, erdian chapel-la esquian, jauçi bat haurraq eguin eta bara, har lettera iracour, jouan corpitçaren cantiala, oro bellarico...*

Errejentek ez zuten ohi bere antzertiaz, antzetzeko eraz, jokamoldeaz gehiegirik idazten, ohar gaitzkeenez.

Bakarrik Jean Baptiste Hardoy Santagraziko oihezainak, antza denez, utzi zuen aholku multzo bat, *ainoizkurtsnI*, deitua, alegia, atzekoz aurrera irakurriz, *Instrukzionea*, Hérelle-k<sup>93</sup> argitaratu zuena. Bada Bordeleko eskuzkribuen artean beste bat, agerlekuko mugimenduak oro adierazten dituen, baina tamalez argitaragabea dago. Dena den, ez dirudi gauza handirik aldatu denik antzetzeko era. Hardoyk dioen bezala, arribada zaldiz, astoz edo mandoz egiten zen. Lehen pheredikiak, Henri Gavel-ek<sup>94</sup> dienez erdi aroko musika, eta zuzenki kantu gregoria-noa oroitarazten digu. Khiristiak iristean, musika alaia baina hotz samarra jotzen dute soinulariek, baina turkak iristean, oso musika bizia. Prozesioak eta bataillak maiz egiten ziren, eta bazuen ibilaldi xume batek garrantzi handia, zeren bidai luze bat irudika zezakeen, adibidez, Galiziatik Jerusalemekin.

93. George Hérelle, "Instruccionia ou Instruction pour la mise en scène des farces charivariques, par J.B. Hardoy", *Gure Herria*, Baiona, 1923, 311-325.

94. Henri Gavel, "A propos du chant du prologue dans les pastorales basques", *RIEV*, V, 1911, 533-537.

Satanez mintzatu garenean azpimarratu dugun bezala, ez dagokie hauei musika-ren dohaina, beraz, hauen sarrera-irtenaldietaz aparte beste testu guztia kantatua da, eta ez da harritzekoa garai haietan mila zazpirehun eta zazpi bertset kantatzeko, eginen zituzten atsedendiak ere kontutan hartuz, antzez emanaldiak bi egun irautea.

Zenbait trageriatan misterioetan bezala *Te Deum* kantatuz amaitzen zen, adibidez, 1770. urtean antzeztu *Seme Prodiga* pastoralean honela bukatzen zen:

*Beude discus horiq,  
Jaunac guitin liberti!  
Dugun Te Deon kanta  
oroc algarrequi.*

Baina Jundane Jakobe Handiarenean, esan dugun bezala, ez da kantatzen ez *Te Deum*-ik ez *Carmagnolle*-rik Iraultza garaian bezala, oro dantzara eta afaltzera, nor bere etxera, noski, gonbitatuz amaitzen baita.

## VII. HIZKUNTZAZ ETA LITERATURAZ

AURREIRITZI gehiegixko erabili izan dituzte euskal literatur kritikari eta ikerleek obrak epaitzerakoan, batzutan hizkuntza gora-beherak zirela, bestetan morala edo politika zela, azken finean, aurkeztu egituraren oreka eta egokierari beharrezko axolarik egin gabe eta bizkar emanez.

Etsenplu batzuk aipatuko ditugu frogaz bezala, sobera adierazgarri direnez gero ene uste apalez. Esate baterako, Julio de Urquijok<sup>95</sup> George Hérèlle-k *Canico eta Beltchitine* deitu astolasterraren argitaraldia eman zuenean, testua frantsesez soilik aurkeztuz, honakoa zioen:

Por otro lado, las pastorales están escritas en un vascuence tan detestable, que de muchos de sus párrafos podría decirse con justicia, lo que Azkue afirmó de algunos catecismos vascongados: No es necesario traducirlos, porque ellos son traducción de sí mismos. Estas son las razones por las que hasta ahora no hemos publicado en esta Revista ninguna de las piezas del repertorio suletino, lo que no quiere decir, claro está, que no pueda encontrarse en ellos, como en todo escrito en vascuence, por malo que sea, algo digno de estudio.

Ez zen, noski, Urquijo hitz berrien zale, Elizalderekin izan zuen eztabaida famatu hura lekuko, baina garbizaletasunak, bai hizkuntzari zegokionak eta bai moralarekikoak eraginik idatzi zuen komentario hura, gaitzetsiz aurrerago astolasterren hizkera, libre eta lohia, "un lenguaje tan libre y grosero" zelako.

95. Julio de Urquijo, "George Hérèlle: *Canico et Beltchitine*, farce charivarique d'après la Bibliothèque de Bordeaux", RIEV, 1908, II, 487-491.

Baina ez zen bakarra iritzi horietan, Albert Léon-ek<sup>96</sup>, ideologia ezberdinekoa izanen zenak seguraski, *Hélène de Constantinople* pastoralaren iruzkina egin zuenean, bertako euskararen maileguen gehiegikeria, eta joritasuna “l’abondance luxuriante, disons-même excessive, des termes empruntés” kritikatzan baitzuen.

Errejentek euskarara itzultzerakoan edo moldatzerakoan testu orijinala pairatu kutsaduraz mintzo zaigu ere Hérelle<sup>97</sup>, adieraziz, moldatzaileak aurreiritzirik gabe ez duela jakin eredia gaintzen trebetasun faltaz, bere hizkuntza gaitasun eta zuzentasun propioari gauza heterogeneo askotxo erantsiz:

il est facile de comprendre que le pastoralier-paysan, sans aucune arrière-pensée, par impéritie, par impuissance de s’affranchir de son modèle, a subi la contagion du texte qu’il adoptait ou traduisait, et qu’il a incorporé machinalement à sa propre correction beaucoup de choses hétérogènes.

Ez dela, ordea, kutsadura hiztegi mailan soilik ematen joskerarenean ere ematen baita. Honi Beñat Oyharçabalek<sup>98</sup> erantzuten dio, esanez, kontutan hartu behar dela eskuzkribuak kopiak zirela, ez zutenak helburutzat argitarapena, kanta baizik, anonimoak zirela eta askatasun osoa zuela antzezleriak nahi zuenean aldatzeko hitzak, eta azken finean, oharkabean egin akatsen bat edo beste gora-behera, hizkuntzaren kalitateaz ez dagoela dudarik, ona dela.

Halaber, baina epailearena egin gabe, J. Saroïhandy irakasle paristarrak *Roland*<sup>99</sup> pastoralaren edizioan latinetik xubererak harturiko hitz multzo handia azpimarratzen du, hala frantsesetik hartuak, hauek batipat bearnesaren bitartez, nola gaztelaniari mailegatuak, aztertuz sakonki bai ortografia bai fonetika arazoak. Gure aldetik hemen testuan ageri diren hizkuntza berezitasun zenbaitekin batera maileguak azpimarratuko ditugu.

## VII.1. Grafia eta fonetika

**VII.1.1.** Batasun eza izen propioen transkripzioan (eta gure edizioan den-denean eman dugu osorik) adierazten digunak *koine*-aren falta eta izen arrotz hoiek transkribitzeak nahiko lan ematen ziotela errejentari. Hona zenbait aldaera: *Jacobe, Jaccobe, Jacque, Jacqui, Jaquibe, Jacques, Jaques; Dominique, Dominica, Domingo; Rodrigues, Rodrigo, Rodrigas; Çaracoce, Şçaracoce; Zebedeia, Zebeda; Cipri, Ciprian, Cipriano...*

96. Aip. lib., 518.

97. Aip. lib., 58.

98. Aip. lib., 100.

99. J.D.-J. Saroïhandy, *La pastorale de Roland*. Bayonne, Bulletin des lettres, sciences, arts et d’études régionales, Courier, 1927.

**VII.1.2.** F-a mantentzea hitzen hasieran, bai izen propio, bai komunetan: *Fernando, Francisco, Francia, Frisco, fabla, falta, fatigatu, faxus, feit, finitu, fornitu, franki, fripu, fuillatu, futre...*

**VII.1.3.** R-a mantentzea hitzen hasieran eta zenbaitetan aitzinetik bokal protektika bat hartzea: *rejetatu, rejuitu, rekiritu, rekontratu, remarki, renomia, repausatu, reprenitu, resursa, reusitu, rusa, aragret, araincura, arapostu, arostatu 'rôti' (Alexandre-ren poeman, rost, baina jada XII. mende bukaerarako rôti), rege /errege, remestiatu /eremestiatu, errendatu...*

**VII.1.4.** Leherkari + urkari (gehienetan R) artean bokal anaptiktika baten sortzea, hala: *aberenti* < affront < affronto italianotik; *berecatu* < fricatum; *boronti* < frontem; *izkiribu* < scriptum; *kirimu* < crimen; *khiristi* < cristianum; *majesturu* < magistrum; *pheredikatu* < predicatum; *kurutxe* < crucem. Baina berandua-go sartua dirudien *kruzifikatia* ere agertzen zaigu.

**VII.1.5.** Kontsonante multzoen sinpletzea berdintze aurrerakiaz, adibidez, -PT- > -T-, -PS- > -S-, -NM- > -M-, eta -NV- > -M- bilakatzea: *azetatu, eklisatu, cumitatu, imolatu...*

**VII.1.6.** -R- eta -S- kontsonanteen metatesia edo lekuz aldatzea: *Hermogena* > *Hemorgena*; *Gabriel* > *Grabiel*; *pauvre* > *praube*; *patri* > *parti*; *teatre* > *triate*; *satisfactum* > *sastifatu* ...

**VII.1.7.** Beti ohi bezala era zaharrek beren grafiak kontserbatzen dituzte. Hori dela eta erka ditzakegu *Jundane Jakobe Handiaren* grafiak XVII. eta XVIII. mendeko xubererazko testuetakoekin.

Hala bada, ohartuko gara **-QUI** ageri dela beti 1600. urtea eta 1657a baino lehen idatzi ziren Bertrand Zalgizekoaren errefauetan<sup>100</sup> hala nola Jakes Belakoarenetan<sup>101</sup>, halaber Juan de Tartasen *Onsa hiltceco bidian*<sup>102</sup> (1666) eta aztergai dugun tragerian. Athanase Belapeyreren *Kateximan*<sup>103</sup> (1697), eta Martin

100. Jesus Arzamendi & Miren Azkarate, "Léxico de los refranes de Bertrand de Zalgiz". ASJU, XVII, 1983, 265-327.

101. Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Madrid, Minotauro, 1964, 184-187.

102. Juan de Tartas, *Onsa hiltceco bidia*. Orthez, Rovyer, 1666.

103. Athanase Belapeyre, *Catechima laburra eta Jesús-Christ goure ginco jaunaren eçagutia, salvatu içateco*. Pabe, Dupoux, 1697.



Maisterren *Jesu-Kristen Imitacionia*-n<sup>104</sup> (1757) eta Bordeleko eskuzkribuan aldiz beti **-KI**.

## VII.2. Morfologia

**VII.2.1.** Izen-lagun genitiboa den **ORE**, bai Tartasengan eta bai Pariseko eskuzkribuan ageri dena **HIRE** aldaerarekin batera, hala nola Belapeyrerengan, ez da jada azalduko ez Maisterrengan ez eta Beñat Mardo koplariarengan (1757), azken bi hauetan **HIRE** bakarrik aurkituko baitugu.

**VII.2.2.** Adizkera zaharren erabilera ere nabarmena da, hala nola indikatiboarena subjuntiboaren ordeztu bertsio honetan bezalaxe:

- 142 *Itchaso handia dudan  
igaran calmian  
eta çoure leguia heda  
Espagnaco lurrian.*
- 254 *Dugun ginco hora adora,  
o ene seme maitia  
o Jacobe procuratu deicuçu  
orori honneur içigarria.*

## VII.3. Joskera

Esan bezala, maileguak ez dira soilki hiztegi mailakoak, ondorengo bertsoan joskeraren menpekotasunaz kontura baikaitezke:

- 106 *Irous date tentaçionia  
çuineq beitu soffritcen  
çeren garaithu oundouan gincouaq  
biçïaren khoroua beiterio emanen.*

## VII.4. Hiztegia

Gauza jakina dugu eta xehetasun handiz erakutsi digute hizkuntzalari ospetsuek, adibidez, Hugo Schuchardt, Gerard Rohlfs edota Koldo Mitxelenak euskarak latinarekiko duen zorra, beraz, ez deritzogu harrigarri horri, alderantziz, euskarak arrotz mundua bereganatzeko ageri duen gaitasuna adierazten digula uste dugu.

---

104. Martin Maister, *Jesu-kristen imitacionia Çuberouaco uscarala...*, Pabe, G. Dugue, J. Desbaratz, 1757.

**VII.4.1.** Hona Jundane Jakoberen pastoralean, besteak beste, latin etorkia duten hiztegi mailako mailegu batzuek:

*abilitate, apostolu, apuskupia, arima, bekatore, bekatu, benedikzione, debozione, desertu, dolore, gaiza, grazia, ifernu, konfesione, kondeatu, kontsolatu, korpisa, kruzifikatia, khurutxia, libertate, mendekatu, mirakulu, ohoratu, paradusia, peredikatu, pietate, populu, mundu, sacratu, saintu, sekula, umanitate, urka, zelu...*

Ohar gaitzkeenez gehienak erlijio munduarekin zerikusia dutenak dira.

*Ave Maris Stella eta Martirien Himniaz*, edota ohizko *Te Deum*-etaz bezala berdina esan dezakegu ere gurutze santuaren seinale egiteaz (*In nomine Parti et...*) eta beste erlijio ohituren mailegutaz.

**VII.4.2.** Frantses maileguak ere oso ugariak dira, ongiasko ondorengo zerrendan ikus dezakegunez:

*abis, adresatu, afrunt, akisitu, ale, alo, aragret, arlogea, arravage, atiratu, au diable, beritable, bonerra, brisatu, bugre, dehordatu, drapeu, esclaritu, estrange, exem, ezprainitu, fabla, faxus, feit, finitu, fripu, fuilatu, futre, gandola, gorment, irus, jenatu, kapable, konkeritu, kontreditu, kreinta, kubart, kursa, lanjer, letera, madame, malur, mertier, orphelin, pec, perturbater, pौरis, potencia, prebosta, punitu, rejetatu, rekiritu, rekontratu, remestiatu, renomia, reprenitu, reusitu, rusa, sependent, sumis, surtut, trublatsu, uhurati, xefaut, voila qui fet (voilà qui est bien), xerkatu, zelerat...*

Hitz hauetarik nabaritzen da argiasko errejentak bere kopia moldatzeko erabili zuen eredia oso zaharra zela, oharkabean frantses hitzak bereganatzean beraiek salatzen baitigute gutxi gora behera noizkoa zatekeen idazkia, ezin bada ere zehatz-mehatz datarik ipini.

Hala nabarmentzen da hori hitzotan bederen: *chefaut, gandola, prebosta, bugre...*

*Chefaut* frantses zaharreko *chafaud*-tik dator, eta hau latinezko *catafalicum*-etik. Egungo *échafaud* duen esanahiarekin jada XVI. mendean ageri da.

*Gandola* frantses zaharreko *gandole*-tik, hau venezierazko *gondola*-tik, eta hau grekerazko *kondu*-tik.

*Prebosta* frantses zaharreko *provost*-etik, zeinek jada XVI. mendean s-a galdu bide zuen, eta hau latinezko *propositum*-etik.

*Bugre* XVI. mendean juramentu bezala erabiltzen zen, tragerian bezala, *bulgare*-tik zetorren, zein heretiko esanahiarekin ager zitekeen.

Ugariak dira ere jainkoa tarteko duten birau eta maradikazioneak, hauetan *dieu* > *bleu* bilakatu delarik. Hala: *jarnibleu* < *je rénie Dieu*; *marbleu* < *mort Dieu*;

*parbleu* < par Dieu; *parle sacrableu* < par le sacre Dieu; *sacrebleu* < sacre Dieu; *eta ventrebleu* < ventre Dieu.

**VII.4.3.** Bearnساتik datozke guttienez besteok: *amenx*, *konpai*, *paseiatu*, *poiltrain*...

**VII.4.4.** Eta gaztelaniari hartuak dudarik gabe dira hitz eta esaldiok: *azote*, *jbrindo caballero!*, *boto*, *desdixta*, *falta*, *kasi*, *kozina*, *moro*, *nezesarioki*, *pilar*, *seberoki*, *solamente*...

Dena den, banan-banako azterketa eta nondik norakoa ez dagokio aurkezpen lan honi, tesi bati baizik.

Eman ditugun zehaztasun hauek 1634. urteko irakurketa zuzena dela pentsatzera bultzatzen gaituzte, eta Saroihandy-rekin<sup>105</sup> bat etortzera Roldan-en pastoralaren gainean mintzo delarik dioenean honako hauxe:

La langue, tout en conservant beaucoup d'archaïsmes, n'a pas laissé de se moderniser et souvent les formes les plus anciennes sont employées à côté des formes les plus récentes. Ce qui montre que le travail d'adaptation ne s'est fait que d'une façon très lente et qu'il est loin d'être complètement achevé. Qui pourrait dire sur combien d'années il a pu s'échelonner? Personne, croyons-nous, ne songerait à s'étonner si le hasard permettait d'établir que la pastorale Roland est l'une des plus anciennes du répertoire basque et qu'elle a été composée dans la première moitié du XVI<sup>e</sup> siècle.

## VII.V. Literatur balioak

Euskal Herria eta bereziki bere Zuberoa eta honen literatur emaitza xumeak hainbeste maite zituen Agosti Chaho<sup>106</sup> idazle erromantikoak honela epaitzen zuen pastorala: *La pastorale souletine n'est que l'ébauche d'un art populaire inventé et cultivé par des paysans illettrés.*

Laborari ezjakinek asmatu eta landu herri antze baten diseinu aurrean gaudela. Zerbaiten iritzi ezkorrak, esan dugu zein iturburu duen, hizkuntza eta moralarekiko aurreiritziak, alegia, baina azken finean garbi dago mailegu gehienak herri mailan ezagunak eta erabiliak direla, irentsiak, gordinak dei genezakeenak oso gutti direlarik, koplarien hizkeran gertatzen den bezalaxe.

105. Aip. lib., 21.

106. Joseph Augustin Chaho, *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan. Itinéraire pittoresque*. Bayonne, A. Andréossy, 1855, T. II, 153.

Bestalde, egungo behatzaileoi ikuskizuna astuna eta aspergarri xamarra gerta badakiguke ez da, noski, hizkuntzagatik, Oyhartçabalek aipatzen dituen beste bi arrazoinengatik baizik:

- a) Bertsotan delako idatzia, eta
- b) Deklamazio estilo hanpatuagatik.

Errejentari ezina zaio askatzea ezarri zaion bertso egituratik, eta orijinalaren moldeari atxikia dagoenez, laukoetan emanen du ixtorio osoa. Baina silaba kopurua oso aldakorra izanen da, sei silabatik hamahiruraino, edota errima luketen bikoetan ezarriz hamabitik hogeiraino, gutxi gora behera. Egitura arrunta, ordea, kuarteta batena da, hau da, - a - a, ez direlarik falta, dena den, beste egitura hauek: - - a a, a a a a, a - a -. Eta beste konbinaketak.

Moldatzaileak ez du izaten pundua aurkitzeko arazo handirik, hau errazturik baitu, noski, euskararen deklinabideari esker.

Estiloaren hanpadura ez da gertatzen, bestalde, errejentak gertaldiren bat animatu nahi duenean. Esate baterako jende xehearen arteko elkarriketak direnean. Langile xumea, emagaldua, taberna ekitaldia, edota satanen solasetan.

Hanpadura honi Lafittek *vaine pédanterie* zeritzon, alferrikako hitz jario hutsa, baina gauza bera gertatzen omen da bretoi misterioetan, Le Braz-ek dioskunez, zeren laborariak edo ofizio apaletakoak ziren egileek horrela idazterakoan frantses estilo ederra eta era handiak bermoldatzen zituztela uste baitzuten, baina, ustea erdia ustel, lortzen zutena parodia hutsean gelditzen zen.

Erretorika irudirik, beraz, ez da falta testuan barrena, hala nola esklamazioak (Ale, Allo, Oh, Ah...) edota ondorengo anaforak bezalakoak:

1055 *Js Cten apostolia,*  
*Js Cten adisquidia,*  
*Js Cten amorecatia*  
*odolaren ichourlia.*

Erkaketa ederraskorik ere irakur dezakegu, ondoko adibidean bezala:

276 *Batheya artio çien arimaç çiren*  
*qhedarria beno belçago,*  
*eta orai batheya oundouan*  
*aldiz elhurra beno çhouriago.*

Beraz, aurkezpen hau bukatzeko ez zaigu desio bat agertzea baizik gelditzen. Europako kultur jaidura nagusi eta herritarrekin batzen gaituen eta zuberotarrek mendez-mende gordetzen eta zaintzen jakin izan duten teatro moeta hau, eta beraz, euskaldun guztiok gurea egin dugun altxor ezin ahantzia, jada 1855. urterako hainbat galera pairatu zuena, Michel-ek Mérimée-ri idatzi gutun batean salatzen

zion bezala<sup>107</sup>, ukan dituenak baino haboro oraindik sofri ez ditzan, behar bezala argitaratua izan dadila, Julien Vinson, Albert Léon, J. Saroihandy hasitako bidea berrartuz, eta beste zenbaiten artean batipat Maria Arene Garamendik<sup>108</sup> egin zehaztasun eskakizunei eta Beñat Oyhartçabalek ideki aurkezpen moldeari jarraikiz, alegia, behar legezko hitzaurre, hizkuntza ohar eta literatur azterketez lagundurik.

Hona hemen gure ahalegintxo. Goza dezazula Jakoberen konpainian, irakurle.

---

107. "Lettre à M.P. Mérimée sur les Représentations dramatiques dans le Pays Basque", *Athenaeum*, 1855. *Eskualdun Ona*. Baiona, 1907-X-4, 25.

108. María Arene Garamendi, *El Teatro popular vasco. Semiótica de la representación*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991.

## BIBLIOGRAFIA

### Jundane Jakobe handiaren trageria eskuzkribuak

1. Pariseko Liburutegi Nazionala. Fondo Zelta eta Euskaldunak, 211 zenbakia.
2. Bordeleko Herri Liburutegia. 1695-IV zenbakia.
3. Baionako Herri Liburutegia. 48 zenbakia.

### Jundane Jakobe handiari buruzko bibliografia berezia

- ARRIBAS, Pablo, *Pícaros y picaresca en el camino de Santiago*. Burgos, Librería Berceo, 1993.
- BARDON, B., *Saint-Jacques, tragoedie, repraesenté publiquement à Lymoges par les confrères pélerins du dict Sainct, en l'année 1596, le jour et feste saint Jacques, 25 juillet, par...*, De Brun, Hugues Barbon, 1596.
- BARRALT I ALTET, Xavier, *Compostelle le grand chemin*. Paris, Gallimard, 1993.
- CALIXTUS II, Papa, *Libellus miraculorum S. Jacobi apostoli*. Patrologiae cursus completus..., accurate J.P. Migne (1800-1875). Brepols, Turnhout, 1372 ss.
- Guía del Peregrino Medieval ("Codex Calixtinus")*. Traducción castellana de Millán Bravo Lozano. Sahagún, Centro Estudios Camino Santiago, 1991.
- HARITSCHELHAR, Jean, "Les chansons basques des pélerins de Saint-Jacques de Compostelle", *Bulletin du Musée Basque*, Bayonne, 1966, 49-86.
- Histoire de la vie, predication, martyre, translation et miracles de Saint Jacques le Majeur Apostre de nostre Iesus Christ extraite et recueillie tant des saints Evangiles et Actes de Apostres, que de plusieurs graves Autheurs, tant anciens que modernes. Item le divin Office propre pour le jour de la feste Saint Jacques avec L'Office de la Messe propre, dudit S. Jacques. Plus le guide du chemin pour aller au voyage de Saint Jacques en Saint Salveur, et nostre Dame du Mont-Serrat. Avec la Benediction des pelerins et Bourdons*. A Rouen, Chez Loys Costé, 1603.

- Liber sancti Jacobi. Codex Calixtinus.* Ed. Walter Muir Whitehill. Santiago de Compostela, 1944.
- Los Miraglos de Santiago (Biblioteca Nacional de Madrid MS 10252).* Estudio y edición de Jane E. Connolly, Universidad de Salamanca, 1990.
- Ludus Sancti Jacobi.* Ed. de Camille Arnaud, Marseille, 1858.
- MEYER, Paul, "La vie et la translation de Saint Jacques le Majeur mise en prose d'un poème perdu", *Romania*, nº121 (1902), T. XXXI, 252-273. Paris, E. Bouillon.
- MOISAN, André, *Le livre de Saint Jacques ou Codex Calixtinus de Compostelle. Étude critique et littéraire.* Paris, H. Champignon, 1992.
- PENSADO, José Luis, "Miragres de Santiago", *Revista de Filología Española*, Anejo LXVIII, Madrid, 1958.
- VAZQUEZ DE PARGA, Luis, et al., *Las peregrinaciones a Santiago.* Madrid, CSIC, 3 Vs, 1948.

### **Bibliografía Orokorra**

- A. M-B., "Mañariko Otxoa Kapanagakoari buruz beste berri bat", *BAP*, XXXII, 1976, 305-306.
- AEBISCHER, Paul, "Théâtre médiéval dans le Pays de Vaud", *Neuf études sur le théâtre médiéval.* Genève, Droz, 1972.
- ALFONSO X EL SABIO, *Cantigas de Santa María.* Madrid, Real Academia Española, 1889.
- ARZAMENDI, Jesus, AZKARATE, Miren, "Léxico de los refranes de Bertrand de Zalgiz", *ASJU*, XVII, 1983, 265-327.
- ANDRIES, Lise, *La bibliothèque bleue au dix-huitième siècle, une tradition éditoriale.* Oxford, The Voltaire Foundation, 1989.
- ASSIER, Alexandre, *La bibliothèque bleue depuis Jean Oudot le jusqu'à M. Baudot. 1600-1863.* Paris, Champion, 1874.

- Autos sacramentales desde su origen hasta fines del siglo XVII*. Ed. de Eduardo Gonzalez Padroso. Biblioteca de Autores Españoles, T. LVIII, Madrid, 1952.
- BÉGUERIE, Pantxika, "Sanctuaires, dévotions et pèlerinages au Pays Basque français depuis le moyen-âge", *Ekaina*, n° 8, Bayonne, 193-211.
- BELA, Jacques de, *Tablettes juridiques*, Archives Départementales des Pyrénées Atlantiques, MS IJ 62/ 2.
- BELAPEYRE, Athanase, *Catechima laburra eta Jesús-Christ goure ginco jaunaren eçagutia saluatu içateco*. Pabe, Dupoux, 1697.
- CASSENAVE, Junes, "Zuberotar Antzertiaren sortzeaz eta iturriez", *Antzerti berezi* 4, Donostia, 1983, 4-10.
- CHAHO, Joseph Augustin, *Biarritz entre les pyrénées et L'Océan. Itinéraire pittoresque*. Bayonne, A. Andréossy, 1855.
- DARANATZ, Jean Baptiste, *L'Église de Bayonne*. Bayonne, Lasserre, 2e ed., 1924.
- DAUZAT, Albert, et al., *Nouveau dictionnaire étymologique et historique*. Paris, Larousse, 1971.
- DE DOUHET, Le Comte, *Dictionnaire des Mystères, ou collection générale des mystères, moralités, rites figurés et cérémonies singulières, ayant un caractère public et un but religieux et moral, et joués sous le patronage des personnes ecclésiastiques ou par l'entremise des confréries religieuses, suivi d'une Notice sur le théâtre libre, complétant l'ensemble des représentations théâtrales depuis les premiers siècles de l'ère chrétienne jusqu'aux temps modernes, par...*, publié par M. L'abbé Migne. Turnholt (Belgium).
- DE LA BARRERA Y LEIRADO, Cayetano Alberto, *Catálogo bibliográfico y biográfico del teatro antiguo español desde sus orígenes hasta mediados del siglo XVIII*. Madrid 1860. London, Tamesis books limited, 1968.
- DESPLAT, Christian, "Famille et communauté: contraintes et lois morales de la fin du XV<sup>e</sup> siècle au début du XIX<sup>e</sup> siècle", *Société, politique, culture, en Pays Basque*. Donostia, Elkar, 1986, 153-199.



- DU MERIL, Edélestand, *Poésies populaires latines du moyen âge*. 1<sup>re</sup>. éd. 1847, Genève, Slatkine reprints, 1977.
- DUCÉRE, Émile, "Le théâtre bayonnais sous l'ancienne régime", *Revue de Basses Pyrénées*, 1883, 117-129, 160-162, 186-191, 226-230, 272-280,...
- EGUIATEGUY, Jusef, *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*. Ed. Txomin Peillen, Bilbo, Euskaltzaindia, 1983.
- ESPARZA, E., "Sobre la representación en Lesaca en 1566 de la Pasión Trovada de Diego de San Pedro", *Príncipe de Viana*, Pamplona, T. XX, 487-491.
- FOURNEL, Victor, *Les contemporains de Molière. Recueil de comédies, rares ou peu connues de 1650 à 1680...*, Genève, Slatkine reprints, 1967.
- GARAMENDI, María Arene, *El Teatro popular vasco. Semiótica de la representación*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991.
- GAVEL, Henri, "A propos du chant du prologue dans les pastorales basques", *RIEV*, V, 1911, 533-537.
- Gipuzkoako Aldundiko Liburutegia. Fondo Julio de Urquijo, MS 7340.
- GREBAN, Arnoul, *Le Mystère de la Passion...*, Traduction et présentation de Michelin de Combarien du Grès et Jean Subrenat. Paris, Gallimard, 1987.
- GREBAN, Arnoul & Simon, *Mystère des Actes des Apostres, traduit fidèlement à la vérité historique, écrite par Saint Luc à Theophile, et illustré des légendes authentiques et vies des saints reçues par L'Eglise. Tout ordonné par personnages dernièrement joué à Bourges et imprimés nouvellement à Paris, mil cinq cents quarante*.
- GUILLAUMIE, Gaston, *Le Théâtre Gascon*. Bordeaux, Delmas, 1941.
- HÉRELLE, George, "Une pastorale de l'an 1500", *RIEV*, T. XVII, 17-19.
- La représentation des pastorales à sujets tragiques*. Paris, Champion, 1923.
- Le répertoire du théâtre tragique*. Bayonne, Curieur, 1928.
- "Instruccionia ou Instruction pour la mise en scène des farces charivariques, par J.B. Hardoy", *Gure Herria*, Baiona, 1923, 311-325.

- JUBINAL, Achille, *Mystères inédits du quinzième siècle*. Paris, Téchener, 1837.
- LABAIEN, Antonio, *Euskal Antzertiaren edestirako apur batzuek*. Tolosa, 1933.
- LAFITTE, Pierre, *L'Art Poétique d'Arnaud d'Oyhenart (1665)*. Bayonne, Gure Herria, 1967.
- Euskal Literaturaz*. Ed. Patri Urkizu, Donostia, Erein, 1990.
- LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUI, *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima*. Baiona 1773, Ed. L. Villasante, Bilbao, Euskaltzaindia, 1985.
- LE BRAZ, Anatole, *Le théâtre celtique*. 1<sup>re</sup> éd., 1905, Genève-Paris, Slatkine reprints, 1981.
- Le Cycle de Mystères des premiers Martyrs*. Ed. de Graham A. Runnalls, Genève, Droz, 1976.
- LEBEGUE, Raymond, *La Tragédie religieuse en France. Les débuts (1514-1573)*. Paris, H. Champion, 1929.
- LEHIR, Yves, *Les drames bibliques de 1541 à 1600*. Presses universitaires de Grenoble, 1974.
- LEIZAOLA, Jesús María, *Romances vascos y literatura prehistórica*. Buenos Aires, Ekin, 1969, 40.
- LEIÇARRAGA, Ioannes, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu berria*, Rochellan, Pierre Hautin, 1571.
- LÉON, Albert, *Une pastorale basque, Hélène de Constantinople. Étude historique et critique*. Paris, H. Champion, 1909.
- LERCHUNDI, Gabriel, *Kantikak*. Belloc, 1948.
- LOUKOVITCH, Koster, *L'évolution de la tragédie religieuse classique en France*. Genève, Slatkine reprints, 1977.
- MAISTER, Martin, *Jesu-Kristen imitacionia Çuberouaco uscarala...*, Pabe, G. Dugue, J. Desbaratz, 1757.

- MARTINEZ DE ISASTI, Lope, *Compendio Historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa por el doctor...*, en el año de 1625, impreso en San Sebastián por Ignacio Ramón Baroja, 1850.
- MASSIP, Francesc, *El Teatro Medieval*. Barcelona, Montesinos, 1992.
- “El repertorio musical en el teatro medieval catalán”, *Revista de musicología* X, nº 3, Madrid, 1988.
- MICHEL, Francisque, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Paris, F. Didot, 1857.
- Pays Basque”. *Athenaeum français*, 1855, IV. Gutunaren berrargitaldia: *Eskualdun Ona*, 1907, X-4, 25.
- MICHELENA, Luis, *Historia de la literatura vasca*. Madrid, Minotauro, 1960.
- Textos arcaicos vascos*. Madrid, Minotauro, 1964.
- MOMMERQUÉ, L.J.A. & MICHEL, Francisque, *Théâtre français au moyen âge*. Paris, F. Didot, 1929.
- OCHOA DE CAPANAGA, Martín, *Exposición breve de la doctrina christiana... traducida del lenguaje castellano al bascongado por el licêciado... Iuã de Azpiroz*, Durango, 1656.
- OYHARÇABAL, Beñat, *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991.
- PANDOLFI, Vito, *Storia universale del teatro drammatico* (Tori, 1964). Katalaneraz: *Història del Teatre* (I), Barcelona, Institut del teatre, 1989.
- PERNOUD, Régine, “Le Théâtre au moyen âge”, *Histoire des spectacles*. La Pléiade, Gallimard, 1965.
- PETIT DE JULLEVILLE, Louis, *Répertoire du Théâtre comique de France au moyen-âge*. 1<sup>re</sup>. éd. Paris 1886. Berrarg., Genève, Slatkine reprints, 1967.
- Les mystères*. Paris, Hachette, 1880.
- Recull de eximplis e miracles, gestes e faules e altres ligendes ordenades por A-B-C*. Biblioteca Universitaria de Barcelona, MS 89.

- RIO, A.E., "De la poésie chrétienne dans son principe, dans sa matière et dans ses formes", *Forme de L'Art*, 2e Partie, Paris, Debécourt, 1836.
- ROIG, Jacme, *Spill o LLibre de les dones*. Ed. R. Chabás, Barcelona, 1905.
- SAROIHANDY, J.D.-J., *La pastorale de Roland. Texte basque établi à l'aide de plusieurs manuscrits. Avant propos. Traduction française. Commentaire*, Bayonne, Courier, 1927.
- SOCARD, Alexis, *Noels et Cantiques imprimés à Troyes depuis le XVIIe siècle jusqu'à nos jours*. Paris, A. Aubry, 1865.
- TARTAS, Iuan de, *Ontsa hilceco bidia*. Orthez, Royer, 1666.
- The Oxford Book of Medieval Latin Verse*. Ed. F.J.E. Raby, Oxford, Clarendon press, 1959.
- URALDE, Rafael Enrique, *Apuntes para una historia del teatro en Bilbao*. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaina, 1982.
- URQUIJO, Julio de, "El misterio de la Pasión representado en Fuenterrabia el año de 1602", *RIEV*, III, 1909, 331-340.
- "George Hérelle: *Canico et Beltchitine*, farce charivarique d'après la Bibliothèque de Bordeaux", *RIEV*, II, 1908, 487-491.
- URKIZU, Patri, *Zuberoako irri teatroa: Astolasterrak*. Donostia, GK, 1988.
- VINSON, Julien, *Le folklore du Pays Basque*, Paris, Maisonneuve, 1883.
- VORAGINE, Santiago de la, *La Leyenda Dorada*. Trad. de J.M. Macías, Alianza Editorial, 1982.
- WEBSTER, Wentworth, "Les pastorales basques", *La Tradition au Pays Basque*. Congrès de Saint-Jean-de-Luz, 1897. Berrarg. Donostia, Elkar, 1982.